



Abertzaleak inoiz baino indartsuago

EAJ-Amaiur, lankidetzarako aukera berria

- **Angel Aintziburu** «Aunitz gauzatan naturatik ikaragarri urrun bizi gara»
- **Larrun** Sagrario Aleman, Paula Kasares eta Oskar Zapata euskarak Nafarroan duen egoeraz
- **Berri Txarrak** «Onartu behar izan dugu gugan zegoen melodia eta pop kutsua»
- **Net Hurbil** 50 urte dira Parisen aljeriarren kontrako sarraskia gertatu zela
- **Hizkuntzalaritza** Azken txana hiztunaren testigantza jaso du Pedro Viegas argentinarrak

GIPUZKOA BERRIKETAN

GUK ERE
EUSKARAZ



2011ko abenduaren 3a
Euskararen Nazioarteko Eguna



Gipuzkoako Foru Aldundia





Azaleko argazkia:
JAGOA MANTEROLA
/ ARGAZKI PRESS

Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera >



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguara



• **NON ZER** •

2011ko azaroaren 27a, 2.300. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Andoni Agirregomezkorta:** «Gauzak dauden bezala, ia hobeto *Vaya semana* etxetik ikustea». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- **Espainiako hauteskunde orokorrak.** Abertzaleek abantaila Ajuria-Eneko bidean. URKO APAOLAZA, MIKEL ASURMENDI, GORKA BEREZIARTUA / 5
- **Iritziak.** MADDALEN IRIARTE, JUAN KRUIZ LAKASTA, CARLOS SEVILLA PERIS (DIAGONAL), SALVADOR COT (EL TEMPS)

Pertsonaia

- **Angel Aintziburu:** «Nik afizio mota guztiak izan ditut beti». REYES ILINTXETA / 14

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 21
- **Ttakun (h)errenka** Fibra. JOSÉ LUIS PADRÓN / 22
- **Biharko sokari tiraka.** KOLDO ALDALUR / 23
- **Hiruko txikian** Adarra jotzeko. JOXEMARI OSTOLAZA / 23
- **Murrizketak baita I+Gn ere.** JOXERRA AIZPURUA / 24
- **Txandan** Indarkeriaren haziak. CASTILLO SUAREZ / 24
- **Zirtak** Gerra eta bake dantzak. JOSE INAZIO BASTERRETXE / 25
- **Bertso berriak** Esnatzeari jarriak. JULIO SOTO / 26

Erdiko kaiera

- **Berri Txarrak:** «Hozka egiten jarraitu nahi dugu». GORKA BEREZIARTUA / 27
- **Antxon Ezeiza.** Bakoitzak aukeratu behar du bere bidea. MIKEL GARCIA / 30
- **Liburuak** SAIOA RUIZ GONZALEZ / 32
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 33
- **Ezpalak** JON TORNER / 34
- **Abarrak** MIKEL ASURMENDI / 35
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 36
- **Osasuna** JABIER AGIRRE / 38
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 39
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 40

Termometroa

- **Bilboko Espazio Publikoaren Ordenantza.** Elkarbizitzarako ala kontrol sozialerako tresna? GOTZON ELIZBURU / 41
- **ETAren amaiera.** Hiru sentimendu eszenatoki berrian. VICTOR AIERDI / 45
- **Pedro Viegas Barros, hizkuntzalari argentinarra:** «Don Blasen ilusiorik handiena hizketa laguna aurkitzea da». GORKA BERSATEGI / 47
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 50
- **Net Hurbil** Paris 1961-10-17: memoriak beti dauzka zulo beltzak. PELLO ZUBIRIA / 52

Azkena

- **Nortasun agiriko sexua.** ANUNTXI ARANA / 54



“Gauzak dauden bezala, ia hobeto ‘Vaya semanita’ etxetik ikustea”

Andoni Agirregomezkorta I
Aktore handia

Barkua erabat hondoratu baino lehen
jaitsi da kapitaina.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

Aizu...

Gauzatxo bat: ez nintzen kapitaina, baina jaitzarazi naute, bai, ni eta beste lagun asko. Barkuaren popatik gainera. Eta barkua hondoratzeaz dagoen ikusteko dago oraindik.

Zazpi urte luzez Vaya Semanita-ko burua izan zarela esango dut hortaz.

Burua bai, baina ez ikuspegi hierarkiko edo anatomiko batetik: estetikotik baizik. Nire irudia saioaren markarekin lotua zegoen nolabait. Inongo aginterik gabe, ordea.

Arraroa egiten zait: dekapitazio bat saioaren birmoldaketa hutsagatik...

Baita niri ere, ez zara arraroa egiten zaion bakarra. Are gehiago, ez dut ulertzen eta ez nator bat hartutako erabakiarekin.

Presioak izan dira azken garaiotan, umore zuriagoa egiteko, adibidez?

Ez nik dakidala. Benetako kapitainei galdetu beharko genieke agian. Gainera, saioaren ezinbesteko baldintza izan da mundu guztia zirikatzea hasieratik. Oreka galduz gero, akabo.

Transgresioa deitu dio norbaitek horri...

Zalantzarik gabe, baina ez gara ez bakarrik, ez lehenak. Izan dira beste batzuk, beste neurri batean horretan aritu direnak. Eta datoze-la gehiago!

ETA inaktibo dagoenetik saioari audientziak apaldu egin zaizkio nabarmen...

Ez dut uste erlaziorik duenik. Hori bai, pena eman dit *Vaya Semanita*-n ez egoteak ETAk bere ekintzak bertan behera uzteko erabakia hartu zuenean.

Akaso izango da politikariak barregarri uzteko politikariak baino hoberik ez dagoela...

Beste egia borobil bat. Baina askotan ez gara horretaz konturatzen eta eskertzekoa izaten da errealitate hori umorez erakusten saiatzea.

Antzarak metro batzuk egiten ditu bururik gabe. Iraungo al du saio berrituak?

Batek daki. Erronka handia dute: audientzia baxua, aktore gehienen aldaketa, saioaren estruktura aldaketa osoa, emisio egun aldaketa... Gauzak dauden bezala, ia hobeto etxetik ikustea!


ETB2 inoizko daturik eskasenetan dabil.

Eta garai oparo batetik zetorrenez jauzia handiago izaten ari da. Audientzia txikia duenez, diru gutxi jasotzen du, eta dirurik ez duenez, telebista inguruan lan egiten duten asko lan-gabezia daude...

ETB publiko, lehiakor eta kalitatezkoa nahi badugu, zer egin?

Hasteko, ez legoke gaizki gu kalera botatzeko izan duten begirune eskasa, okerreko erabakiak hartzen dituztenak botatzeko erabiliko balute. ■





A-20
Espainiako hauteskunde
orokorrak

Abertzaleek abantaila Ajuria Eneko bidean

Alderdi abertzaleek emaitza historikoak lortu dituzte: hamairu diputatu izango dituzte Espainiako Kongresuan. Amaiurren sarrera indartsuak eta EAJren eta Geroa Bai-ren emaitza onek agerian utzi dute abertzaletasunak Euskal Herrian izan dezakeen potentziala. Txanponaren beste aldean, alderdi sozialistaren deskalabrua dago.

URKO APAOLAZA

JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS



Aurreikuspenen kontrara, alderdi sozialista EAEn ere hondoratu egin da eta Patxi López izan da galtzaile nagusia.

IRABAZLE UGARI ETA GALTZAILE BAKARRA, argazki horixe utzi digute Espainiako hauteskunde orokorrek. Galtzailea, alderdi sozialista. Espainian hondoratu egin da eta inoizko emaitza txarrenak izan ditu (110 eserleku); baina porrota mikatzagoa gertatu zaio Patxi López, aurreikuspenen kontrara, ezin izango

baitu bere burua “salbatu den bakarra” moduan aurkeztu Madrilen.

Irabazleen artean, Amaiur nabarmentzen da. Ordezkaritzari dagokionez, Hego Euskal Herriko lehen indar bilakatu da koalizio subiranista (zazpi eserleku) eta taula politikoa aldara-zi du berriz ere, maiatzaren 22an Bilduk egin

zuen moduan. Portzentajeak eta boto kopuruak ikusita, ordean, berdinketa teknika dago, lau indar nagusiek (UPN-PP, Amaiur, PSE-PSN eta EAJ) 300.000 bototik gora ateratu baituzte eta oso alde txikia dute elkarren artean.

Lau hankako mahai ospetsua sendotuta ateratu da beraz. Iraganeko, ezker abertzaleari ez-ikusierena egin izan diote alderdi espainiarrek maiz, ETAren jarduna aipatuz eta ilegalizazioez baliatuz. Orain, behin ETAk armak utzita eta ilegalizazioaren oztipoa arrakastarekin gaindituta, zaila izango du inork herri honetan politika egitea arestian aipatutako lauki hori kontuan eduki gabe.

Abertzaleen garaipen historikoa

Euskal Herriak Espainiaren kolore ezberdina erakutsi du beste behin ere. Gainera, oraingoan gauza ezohikoa gertatu da. Alderdi espainiarrek beti irabazi izan dituzte Madrilera begira dauden hauteskundeok, baina lehen aldiz abertzaleak gailendu zaizkie: jokoan zeuden 23 diputatuetatik 13 lortu zituzte abertzaleek. 2008an konstituzionalistek 890.000 boto lortu zituzten eta abertzaleek 620.000 (ezker abertzalearen abstentzio aktiboaren estrapolazioa eginda). 2011n espainiarrek 662.000 boto baino ez zituzte ateratu eta abertzaleek 700.000.

Abertzaleen garaipena PSOEren beherakadaren bizkar gertatu da nolabait, sozialistek 200.000 boto baino gehiago galdu baitzituzte orotara Hego Euskal Herrian. Zentzu horretan, abertzaleen garaipena historikoa da, baina neurritik hartu beharrekoa; abertzaleek aurrerakada handia izan dute –ia 80.000 boz gehiago lortu zituzte–, baina Estatu mailako hauteskundeetan alderdi espainiarrak bozkatzeko aktibatzen den hautesleriaren zati bat oraingoan etxean gertatzeak ere izan du zerikusirik horretan. Abstentzioaren datuei begiratu besterik ez dago, 2004arekin alderatuz bost puntu handiagoa izan baita –2008ko datuak ezker abertzalearen abstentzioak desitxuraturik daude–.

Amaiur eta EAJ, lehia gogorrean

Bilduren emaitzen ondoren, EAJk orain arte izan duen nagusitasuna arriskuan ikusi du eta buru-belarri aritu da kanpainan Amaiurren kontrako mezuekin. Biek bete zituzte euren helburuak. Emaitzak ikusita, esan liteke bata zein bestea laterketako *polean* pare-parean aterako direla eta karrera zirrargarria ikusiko dela Ajuria-Enearako bidean.

EAJk helburutzat zuen talde parlamentaria lortzea (bost eserleku) eta EAEn lehen indarra izatea. Hauteskunde gauean Iñigo Urkulluk behin eta berriz nabarmendu zuen jeltza-

leak “Euskadiko lehen indarra” direla. Albo batera utzita lurraldetasunaren arabera egiten diren zenbaketak, garbi dago EAJk lortu duela Amaiurren hordagoari eustea, 2008an eta 2011n baino 17.000 boto gehiago eskuratu ditu. Areago, EAEn dezenteko aldea ateratzen dio koalizio subiranistari (40.000 boto) eta 2013ko bozketa autonomikoetarako lan handia egin beharko duela bistarazi dio bere arerio nagusiari.

Amaiur sektore subiranisten metaketaren indarrak baliatu da beste behin ere. Zazpi eserleku lortu ditu, lurralde guztietan du ordezkaritza, eta Araban EAJren gaineratik jarri da boto kopuruz. Maiatzeko foru eta udal hauteskundeetan Bilduk jasotakoak baino 20.000 boto gehiago izan ditu Amaiurrek, baina Aralarren emaitzen baturarekin ateratzen den kopurura ez da iritsi. Zenbaitek azkeneko datu hau interpretatu dute, esanez metaketa subiranistak “gailurra” jo duela. Iñaki Antiguedaden esanetan “sekuentzia” da garrantzitsua eta beraientzat “hain ego-kiak” ez diren hauteskundeetatik indartuta ateratzeko helburua bete dute.

Amaiurrek badu bolbora gehiago errekaratzen, tartean Sorturen legalizazioa eta Arnaldo Otegi aske uztea. EAEko hauteskundeetan berebiziko garrantzia izango duten faktoreak izango dira horiek.

Bestalde, esanguratsua da Nafarroan gertatutakoa. Abertzaletasunak bi diputatu lortu ditu, baina Amaiurrek eta Geroa Baik. Uxue Barkosen koalizioak ezusteko itzela eman du, 42.000 boto lortuta Amaiurren pare jarri da kasik (49.000). Agerian geratu da ezker subiranisten esparrutik harago badagoela beste esparru abertzale handi bat. Hemendik aurrera, bi indar horien arteko elkarlana funtsezkoa izango da UPNren hegemoniari aurre egiteko.

Izan ere, abertzaleek oro har, aukera paregabea dute elkarlanerako eta Madrilen euren ahotsa ozenago entzunarazteko: hiru sigla eta bi talde parlamentari. Lehia handia dago euren artean eta kasu askotan desadostasun ideologikoak ere bai, baina inozakeria litzateke lehia eta desadostasunen ondorioz aukera hori ez baliatzea. Sikiera puntu komun batzuetan indarrak batuta egin beharko lukete aurrera, batez ere bake prozesuari dagokionean. Euskal gizarteak ez luke besterik ulertuko.

Patxi Lópezen deskalabrua

Alderdi sozialistak %18 egin du behera EAEn botoetan, 430.000 boto izatetik 254.000 izatera igaro da gauek goizera. Inkesta eta aurreikuspen guztiek emaitza hobeak iragartzen zituzten Patxi Lópezen alderdiarentzat, baina beherakada Espainiakoaren parekoa izan da eta zentzu horretan ez du ematen herritarrek

Araba

ALDERDIA	BOTO KOPURUA		DIPUTATUAK	
	2011	2008	2011	2008
PP	45.891	45.276	1	1
PSE-EE (PSOE)	39.579	69.479	1	2
Amaiur	32.267	-	1	-
EAJ	31.849	31.983	1	1
Ezker Anitza (IU)	6.897	7.120*	0	0
EA	-	5.311	-	0
Aralar	-	2.917	-	0
Abstentzioa	%30,36	%30,37		
SENATARIAK: PPK 3, PSE-EEK (PSOE) 1.				

* Ezker Batua-Berdeak taldeak lortutako emaitzak.

Bizkaia

ALDERDIA	BOTO KOPURUA		DIPUTATUAK	
	2011	2008	2011	2008
EAJ	208.223	196.242	3	3
PSE-EE (PSOE)	136.426	233.371	2	4
Amaiur	122.606	-	2	-
PP	113.021	116.110	1	1
Ezker Anitza	24.117	27.471*	0	0
EA	-	19.605	-	0
Aralar	-	9.740	-	0
Abstentzioa	%30,00	%33,41		
SENATARIAK: EAJk 3, PSE-EEK (PSOE) 1				

* Ezker Batua-Berdeak taldeak lortutako emaitzak.

Gipuzkoa

ALDERDIA	BOTO KOPURUA		DIPUTATUAK	
	2011	2008	2011	2008
Amaiur	129.655	-	3	-
EAJ	83.445	77.903	1	2
PSE-EE (PSOE)	78.100	127.840	1	3
PP	51.088	47.858	1	1
Ezker Anitza	12.508	15.812*	0	-
EA	-	25.455	-	0
Aralar	-	17.332	-	0
Abstentzioa	%32,31	%42,62		
SENATARIAK: Amaiurrek 3, EAJk 1				

* Ezker Batua-Berdeak taldeak lortutako emaitzak.

Nafarroa

ALDERDIA	BOTO KOPURUA		DIPUTATUAK	
	2011	2008	2011	2008
UPN-PP	126.101	133.059	2	2
PSN (PSOE)	72.656	117.920	1	2
Amaiur	49.100	-	1	-
Geroa Bai	42.411	-	1	-
Ezkerra (IU)	18.224	11.098*	0	0
NaBai	-	62.398	-	1
Abstentzioa	%28,65	%27,94		
SENATARIAK: UPN-PPk 3, PSNk (PSOE) 1				

* Nafarroako Ezker Batuak lortutako emaitzak.


Hego Euskal Herria

BOTO KOPURUA

	2011	2008
PP / UPN-PP	336.101	342.303
Amaiur	333.628	-
PSOE	326.761	548.610
EAJ	323.517	306.128
Ezkerra / Ezker Anitza (IU)	61.746	61.501*
Geroa Bai	42.411	-
NaBai	-	62.398
EA	-	50.371
Aralar	-	29.989
Abstentzioa	%30,34	%34,28

* 2008an NEB aurkeztu zen Nafarroan, eta EB-Berdeak EAEn.

DIPUTATUAK


SENATARIAK: PP/UPN-PPk 6, EAJk 4, Amaiurrek 3, PSOEk 3.

Lópezen kudeaketa saritu dutenik ETaren amaierari lotuta, berak kanpainan lorpen hori aldarrikatu duen arren behin eta berriz.

Orain Patxi Lópezen eta buru den Eusko Jaurlaritzaren etorkizuna kolokan dago. Legitimitasun gero eta urriagoa du Lakuako exekutiboak eta hauteskundeak aurreratzeko eskatzen dituzten hotsak ozenago entzungo dira hemendik aurrera. Lópezek Espainia mailan bere alderdian jokatu duen papera ikusteko dago, horren arabera ere *tempoak* ezberdinak izango ei dira EAEko hauteskun-

deei dagokionez. Bestalde, PPK kate motzean lotuko du Lopez, are gehiago Madrilén gehiago absolutua lortu eta gero.

PPren gehiengo absolutuak alboko ondorio ugari ditu, txarrerako eta onerako. Euskal Herriko bake prozesuari dagokionez, Mariano Rajoyk hain garaipen handia lortu izanak, ahots asko isilaraziko ditu bere alderdiko sektore integristen artean eta eskuak libre izango ditu prozesuan aurrera egiteko, horretarako borondaterik izanez gero, noski. ■





Batasun bidean

Maddalen Iriarte

LOVE'S LABOUR'S LOSTEN utzi zuen idatzia William Shakespearek Nafarroak harritu egingo zuela mundua (*Navarre shall be the wonder of the world*), eta kostata baina badirudi ekin diola bide horri. Sabino Cuadra eta Uxue Barkos, Nafarroaren izenean Espainiako gorteetan bi diputatu abertzale izatea amestu ere ez zuten egin Arturo Kanpionek edo Manuel Irujok. Bi abertzale nafar, euskaldunak gainera, 13ko talde zabal baten barruan, euskal abertzaletasunak sekula lortu duen marka onena. Baina abertzaleentzat azkenean emaitza ona izan bada ere, kostatako garaipena izan dela ezin da ukatu. Euskal abertzaletasunak, Nafarroan zein gainerako lurraldeetan, asignatura bat gainditu beharra dauka beste edozertan hasi baino lehen: argi eduki behar du zein den benetako arerio politikoa. Elkarren artean mokoka dabilzan bitartean, jai dute. Etxe barrukoa auzokoa baino gorrotoago duten bitartean, ez dago zereginik. Eta pekatu larri horretatik ez da inor salbatzen, ez behintzat alderdi politikoak.

Herritarrek erakutsi beharko diete. Ari dira dagoeneko bidea erakusten. Batasuna bultzatuz gero, saria, eta hortxe Amaiur horren lekuko. Eta batasunari muzin eginez gero, zigorra, eta hortxe Nafarroa horren lekuko, nahiz eta bi diputatu abertzale izan. Hautesleek herri asko eta askotan Geroa Bai jarri dute Amaiurren aurretik (Iruñean bereziki), alderdien aparatuei erakutsiz indar-metaketa eta sigla-pilaketa ez dela gauza bera. Denek ikasi beharreko lezioa: bai sigla batzuen indarrez mundua jango zutela espero zutenek, baita ia-ia eskainurik gabe gelditzeko zorian egon direnek ere.

Esango didazue EAJk ez zuela batasuna bultzatu, eta ez duela aparteko zigorrik jaso. Baina EAJn badakite gehiegi bizkaitartzen ari direla, nahiz eta galera nagusia (diputatu bat) Gipuzkoan jaso. Egibarrir errua botatzeko ohitura dute Sabin Etxean, erradikalegia omen delako, baina Bizkaian Amaiurren sarea zabaltzen ari zaie, bai Durangaldean zein Lea-Artibai eta Gernikaldean, Bilbora gero eta gehiago hurbilduz. Hortxe dauka Amaiurrek koska: hiriburuetan (Donostia salbu). Batasuneranzko bidean sakontzea beste aukerarik ez daukate abertzaleek, benetako arerioari aurre egin nahi badiote. Behar bada, hala bai, harrituko du Nafarroak mundua.



Irabazleak, galtzaile

Juan Cruz Lakasta

UPN-PP koalizioak irabazi ditu hauteskundeak Nafarroan. Baina Madrildik PPren aldeko inoizko olderik handiena zetorrelarik, haiek 5.500 boto eta diputatu bat galdu dituzte, emaitzak 2008koekin alderatuta. Nafarroako Kutzako eskandaluek zerikusirik izanen dute, doike.

PSNk bigarren indarra izateko lehia irabazi dio Amaiurri. Baina 45.000 boto eta diputatu bat galdu ditu, eta bere hauteskunde zorua zulatzen eta zulatzen segitzen du. UPNren eskutik segitzen duen bitartean gauzak ez dira erraz aldatuko. Eta igandeko emaitzak ikusita, ez dirudi UPNren eskua askatuko duenik, ez dirudi foru hauteskundeak aurreratuko dituztenik.

Amaiurrek Geroa Baii aurrea hartu dio, indar abertzaleen artean lehena izateko lehian. Baina alde txikia ateratu dio Ezker Abertzaleak, Aralarrek, EAk eta Alternatibak osaturiko koalizioak EAJk eta Zabaltzeneko independenteek sortutakoari. Geroa Bairen emaitza onen eragileak, hainbat: Uxue Barkos hautagaiaren indarra, NaBairen espazio politikoa bereganatzea, talde mediatiko baten laguntza eraginkorra.

Amaiurrek bere emaitza ez horren onen azterketa egiterakoan, hain zuzen ere faktore horiek guztiak hartu beharko lituzke aintzat. Aukeratu zuen hautagaia egokiena ote zen hainbat taldek osaturiko koalizio batentzat. Hautagai, irudi, diskurtso egokienak erabili ote zituen NaBairen espazio politikoa bereganatzeko lehian. Alde dituen hedabideek Nafarroan oihartzunik ote duten eta zergatik.

Aipamen berezia Aralarrentzat: Bilduk maiatzeko foru hauteskundeetan baino 7.000 boto gehiago lortu ditu Amaiurrek. Horrek oso egoera ahulean utzi du.

Historian lehenbizikoz, indar abertzaleek bi diputatu lortu dituzte Nafarroan. Horra hor titularrak. Titularraren atzean, abertzaletasuna Nafarroan ulertzeko bi eredu, lehian. Ikusteko dago inoiz lehiatik elkarlanera pasako diren. Nafarroan aldaketa politikoa lortzeko, ezinbestekoa litzateke.



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Zabalgune Plaza, 5
48009 Bilbao
☎ 94 423 1500
Faxa: 94 424 3947
eudel@eudel.net

www.eudel.net

Ongi etorri Marianismora

Ezpainak beti bustita dituen gizona Espainian jaun eta jabe egin denez, atzeratu erlojuak, ez udazkenean bezala ordubete, atzeratu hamaika urte. Aznarren 2000. urteko garaipena dator memoriara PPren gehiengo absolutua ikusita. Bitartean, hemen dago optimista izan nahi lukeen bat teklak jotzen, pentsatu nahian Marianismoa ez dela izango Aznarismoaren kopia berritua bakarrik.

GORKA BEREZIARTUA

BAI, EGIA, Rajoy Erreinuaren periferia-ko frankismo soziologikoaren kumea da. Aita magistratua zuen, Pontevedra-ko (Galizia) Entzutegi Probintzialeko presidentea; aitona 1936ko estatutu galiziarren idazketan parte hartutakoa. Ez dator hutsetik Mariano, elektrizistak baino entxufe gehiago zeuzkan eta bata bestearen atzetik, Kantauriko euria bezala erori zitzaizkion zinegotzi kargua 20 urterekin, Diputazioko presidentzia 28rekin, Xuntako presidente ordearen eserlekua 30ekin eta apur bat beranduago, idazkaritza nagusia Galiziako Alianza Popularren. Badu abildadea mutilak eskaileran gora egiteko, bestela zaila da horrelako ibilia egitea Manuel Fragaren begiko izan gabe (eta Rajoy ez da).

Probintzietatik kapitalera joko du Tonino Carotoneren kantako beste Mariano hark bezala, baina Rajoyri ez diote karterarik lapurtuko, eman baizik, bat, bi, hiru, lau eta bost ministeriotan. Eta halako batean Aznarren atzamarrak –guraize horrek– mintzaira hezeko galiziarra seinalatuko du PPren tronura igotzeko. Zergatik zuen bibotedunak Mariano seinalatu? Ez da burugabea pentsatzea Aznarrek norbait apala xerkatzen zuela boterearen jostailua pixka batean uzteko, berak Georgetowneko gerizpetik urruneko agintailuarekin manatzen jarraitu eta momentu egokia iristean Espainiaren Bigarren Salbazioari pertsonalki ekiteko. Azken finean, Mariano Rajoyri abildade bakarra ezagutzen zaio, gaita galiziarrek daukan huraxe: soinu berdina atzeratzen duela ezkontzetan eta funeraletan.

Baina artikulua hasi dugu esanez Marianismoa ez dela izango, edo ez duela zertan izan, ez genukeela nahi izaterik Aznarismoaren kopia hutsa. Frogak badira, baikor izan nahi duenarentzat behintzat, erakusten dutenak Genova kalean gauzak zertxobait aldatu dire-



Horrelakoa da Rajoy, merituhandirik egin gabe gauzak lortzen dituen gizona.

Deskuiduan handik pasatzen zena. Hitz bat bestea baino altuago esaten ez duena. Baina inoiz azaldu behar zuen Marianismoak eta orain du momentua. Aznarren azken arrastoak desagerraraz ditzake, beharbada. Edo beharbada ez.

la Rajoy agintera iritsi zenetik. Zakur, arratoi, suge eta dragoi bezatu ditu 2004tik hona karguari eutsi eta Aznarren ekipotik jasotako zamak gainetik kendu bitartean.

Aurrena kendu zuen, gauzak ulertzeko organoa matxuratuta jaio zen Angel Acebes. Gero kendu zuen solariumaren eraginez gizon laranjen arrazako bihurtu den Eduardo Zaplana. Pixkanaka-pixkanaka, PPren buztinak bere gisara moldatzen joan da, bizkarretik Esperanza Aguirre bezalako aznaristek eman nahi izan dizkioten labankadak saihestuz, bere estiloan, ezer pasako ez balitz bezala. 2008ko PPren kongresutik aurrera ibiliko da lasaiago, behin Aguirre jabetuko denean alderdiaren buruzagitza lortzen saiatzeak lehia kaindarra eragingo lukeela Madrilgo peperoen eta Espainiako Estatu-

ko gainontzekoen artean.

Hauteskundeak ere bere estiloan irabazi ditu Rajoyk, irabazi gabe. Kontrarioa erabat hondoratu ez balitz, PPren emaitzak ez ziren hain ikusgarriak izango, zenbaki absolutuetan 2008ko boto kopurua pixka bat, gutxi, oso gutxi hobetu besterik ez baitu egin. Horrelakoa da Rajoy, merituhandirik egin gabe gauzak lortzen dituen gizona. Deskuiduan handik pasatzen zena. Hitz bat bestea baino altuago esaten ez duena. Baina inoiz azaldu behar zuen Marianismoak eta orain du momentua. Aznarren azken arrastoak desagerraraz ditzake, beharbada. Edo beharbada ez. Eta beharbada ikusiko dugu baikor izateko intuizioak benetako motiboak zeuzkala. Edo beharbada ez. Zeren arabera, noren arabera, gauza arragoak ikusitakoak gara, inoiz ez da jakiten, ikusi beharko, datorrena datorrela, joanak joan (barka artikuluari hain amaiera galiziarra ematea). ■



Botere osoa eskuinarentzat

Euskal Herrian aro politiko berria zabaldu da azken urte honetan. Espainiarren gehiengoak lema kolpea eskatuko dio PPko Mariano Rajoyri. Presidente izateko ordua heldu zaio. Espainiako Estatuko aro berria Euskal Herriko bera ote den ikuskizun dago.

MIKEL ASURMENDI

MARIANO RAJOYREN ORDUA DA. Paradoxi-koki, Espainiako presidente berriak ordua –eta aroa– orain dela zortzi urte zeukan. 2004ko martxoaren 11ko Madrilgo atentatuek zortzi urte eten dute PPren nagusitasuna. Artean, Espainiako Gobernuaren buruzagitza ustekabeen hartu zuen Jose Luis Rodriguez Zapatero burumakur joan da. Alta bada, Zapaterok bozketa oso gutxi galdu du Espainiako Diputatuen Kongresuan. Eta hori, azken hiru urteotako krisi finantzarioa eta ekonomikoa kontuan hartuta, bada paradoxa.

Partidu Popularra Moncloara itzuli da Mariano Rajoyren eskutik, PSOE berriz oposiziora itzuli da Alfredo Perez Rubalcaba buru duelarik. Felipe Gonzalezekin ministro izan zen Rubalcabak alderdi sozialistaren emaitza txarrenak jaso ditu, 1982an irabazteko jalgia zenetik. PSOEek gehiengo osoz irabazi zuen orduan. Gehiengo erabatekoa dauka PPk egun, historiako gehiengo osoena. 176

diputaturekin aski zuen, baina 186 ditu. Aurreko legealdian baino 32 gehiago. PSOEek berriz 59 diputatu gutxiago ditu oraingoan: 110 eserleku eskuratu ditu.

Gehiengo osoa izatearen tentazioak

Botere politiko osoa hartu du Rajoyk, eta krisi ekonomikoak eman dio aukera hori. Ordea, gehiengo osoa kudeatzea ahobiko ezpata da, eta egoera ekonomiko larriak eskatzen dituen politikak norberak bakarrik ebazteko tentazioan erortzeko arriskua darama berarekin. Krisia globala edo mundiala da, eta ez dirudi Rajoyk merkatuek agintzen dutena zalantzan jarriko duenik. Halaber, krisi ekonomikoaz beste, PPk Estatuaren administrazioan burutu behar dituen erreformak bakarrik gauzatzea tentagarria bezain arriskutsua da. Izan ere, ez da legealdi batera begira gobernatzeko ari, luzerako baizik. Hartara, gehiengo osoa izanda ere, Rajoyk oposizioa kontuan hartu beharko du. Egungo oposizioa ez da orain arte bezain monolitikoa, hau da, oposizioa PSOE baino gehiago da, anitza da.

Iragan hamarkadetan ezarri zen PSOE eta PPren arteko dualismoan eragile berriak sartu dira. Oposizioa anitzagoa eta zatituagoa da. IU-LV koalizioak –Espainiako ezker ekologistaren marka berriak– iraganean PCEk lideratu zuen IUren ordezkaritza berreskuratu du. hamaika diputatu lortu ditu, aurreko legealdian Gaspar Llamazaresek lideratutako IUk baino bederatzi eserleku gehiago. Cayo Lara da ezkerreko ekologismoaren aurpegi berria. Rosa Diezen alderdia da beste adibide bat. UPyD alderdia diputatu bat izatetik bost izatera pasa da.

Espainiako ezker anitzagoa da, eta periferiako indar nazionalistak (Katalunian eta Euskal Herrian bereziki) are indartsuagoak. CiUk hamasei diputatu lortu ditu, duela lau urte baino sei gehiago. Amaiurrek –euskal ezker subiranistaren marka berriak–, zazpi eserleku bereganatu ditu. Ezker abertzaleak



“Inork ez du kezkarik sentitu behar. Etsai edo arerio bakarrak langabezia, defizita eta zorra dira” esan du Rajoyk.

inoiz izan zuen bost diputatuen kopurua eta aurreikuspen onenak gainditu ditu kolazioak. EAJk bost diputatu lortu ditu, aurreko legealdian baino bat gutxiago. Boto kopuruan igo da, halere. Uxue Barkosek gidatutako Geroa Baik eman du ustekabe handiena. Zortzi urtez bete duen aulkia beteko du berriz ere Madrilgo Kongresuan. Euskal abertzaletasunak egundo izan duen ordezkartza zabalena izanen du datozen lau urteetan.


Kataluniako ERCk eutsi dio diputatu kopuruari, hiru lortuz. Duela lau urte lortu zituenen aldean, 40.000 boto galdu ditu ordea. ERCren bilakaera aztertzeke moduko da, ezkerreko euskal subiranistek etorkizunean urratu behar duten bideari begira. Bestalde, BNGk eta CCk –indar politiko gali-ziarrak eta kanariarrak– eserleku bi atxiki dituzte, baina boto kopuru esanguratsua galdu dute: 30.000 baino gehiago biek ala biek. Compromis-Qk eta PPko ministrari ohi Francisco Alvarez Cascosen FACek osatzen dituzte Espainiako Kongresuaren eserlekuak, bakoitzak bana eskuraturik.

Krisi ekonomikoa eta marko politikoa

Hauteskunde aurreko inkestek bete-betean asmatu zuten PPren eta PSOEren emaitzen iragarpenetan. Areago, eman zitezkeen datu polarizatuena eman dira Estatuan. Hots, espainiar soziologia populista fidel atxiki zaio Mariano Rajoyren PPri. Halaber, PSOEek jaso duen porrotak baiezta du espainiar bozemaileen boto erabilgarriaren garaia iraganeko aukera dela. Hainbat galdera dago: Espainiako Estatuak dituen arazo ekonomikoei zein estrukturali –krisiari aurre egitea eta Autonomien Estatuaren eredu aldaketa– soluzioak emango zaizkie egungo indar harreman politikoaren arabera? PPk

Rajoyk "enemigos" esan zuen. Bere "enemigos" etsaiak edo arerio soilak izanen diren ikuskizun dago alabaina. Nolanahi den ere, Rajoyk etsai handienak alderdian omen dauzka

ESPAINIAKO DIPUTATUEN KONGRESUAREN OSAKETA



2011

SENATARIAK: PP 136, PSOE 48, CiU 9, PSC-ICV-EUA 7, EAJ 4, Amaiur 3, CC 1

ABSTENTZIOA
%28,31

Estatuaren Gobernu gehiengo osoz kudeatzen duelarik? Horiek horrela, eta Euskal Herrian gatazka historiko politikoa konpontzeko aukera berriak zabaldu direnean.

Indar politikoaren harremanak aldatu dira Estatuan, baita Hego Euskal Herrian ere. Baina EAJk eta Amaiurrek jorratuko duten bidea urratzeko moduak ez dira argitu oraindik ere. Akordioak lortzeko

asmorik edo interesik ba ote duten, esaterako. Mariano Rajoy ez omen da Jose Maria Aznar. Moncloako maizter berriak presidentea izango zela jakin bezain laster haxe adierazi zuen: "Inork ez du kezkarik sentitu behar. Etsai edo arerio bakarrak langabezia, defizita eta zorra dira". Rajoyk "enemigos" esan zuen. Bere "enemigos" etsaiak edo arerio soilak izanen

diren ikuskizun dago alabaina. Nolanahi den ere, Rajoyk etsai handienak bere alderdian omen dauzka. Legealdiak iraun ohi duen lau urteek emanen digute Espainiaren eta Hego Euskal Herriaren bilakaera politikoaren balantzea. ■



DURANGOKO AZOKA 2011

**HARPIDETZA
ESKAINITZA
BEREZIA**

oparitu **argia**

HARPIDETZA

**%50
GUTXIAGO**

DURANGON ERDI PREZIOAN

~~138€~~ ... ► **69€**

**Azoka egunetan
(abenduaren 4tik 8ra):**

ARGIaren standean (Goienkale 96-97-98)

Telefonoz: 943 371 545

e-postaz: harpide@argia.com



Gehiengo osoa Kongresu anitzean

Carlos Sevilla Peris

Diagonal aldizkariko kazetaria

HILABETETAKO, urtetako oposizioaren ostean, Zapateroren Gobernuaren desgastea literalki itxaroten, Alderdi Popularrak inkestarik baikorrenak berretsi ditu. Historiako emaitzarik onena (186 eserleku) eta PSOE-ren txarra (110). 2008ko bozekiko, PSOEek 4,3 milioi bozka galdu ditu eta kontserbadoreek 550.000 inguru irabazi dituzte. Mariano Rajoyren proposamenaren anbiguetateak eta hilabete gutxi batzuk lehenagora arte parte hartzen zuen gobernutik aldentzeko Alfredo Pérez Rubalcabak egindako saiakerak, presidentetzarako lehian egon den maila erakusten digute.

Baina hurrengo parlamentua oso desberdina izango da aurrekoarekiko. Krisi ekonomikoari aurre egiteko PSOEren gobernuaren errezetak botoak beste alderdi batzuetara sakabanatu ditu eta Izquierda Unidak atera du etekin gehien, 2 diputatutik 11ra igaroz. Ezkerreko beste talde bat, Amaiur, 7 eserlekurekin estreinatuko da, EAJk baino bi gehiago. 333.000 botorekin, koalizio abertzaleak maiatzeko autonomikoetan jasotakoak baino 20.000 boto gehiago lortu ditu, eta HBk 1986an izandakoak baino 100.000 gehiago –ezker abertzaleak Kongresuan lortutako emaitzarik onenak ziren, 5 eserlekurekin–. Foro Ciudadano eta Compromís-Equo koalizio valentziarra gehitzen baditugu, 1977tik izan den hemiziklorik anitzena dugu, 13 alderdik ordezkatu.

Espainiako eta Europako ekonomiaren egoera larriak –murrizketa neurriak tarteko– kokatu du igandeko hauteskundeetan testuingurua. Botere ekonomikoaren aurrean politikak duen benetako boterea eztabaidarako gaia da eta boto batek, ordezkari politiko batek duen ekintzarako gaitasuna zalantzan dago, inoiz baino gehiago. Krisiak eta gehiengo osoa duen PPren gaitasunak espero ditza-kegun soluzioek legegintzaldi konplexua aurreikusten dute. Eta Rubalcabak dagoeneko PSOE-ren ohiko batzarrera deitu du “lehenbailehen”.



Tsunami urdina espainiarra besterik ez zen

Salvador Cot

El Temps aldizkariko zuzendaria

CIU EZ DA KATALUNIA, baina atzoko hauteskundeetan ondoren, bera da Kataluniaren antz handiena duena. Sekula, ezta Jordi Pujolen ondoz ondoko gehiengo absolutuaren garaian ere, ez zuen CiUk halako ordezkartza maila lortu. Artur Mas Generalitateko presidentea da, Xabier Trias Bartzelonako alkatea da, eta Josep Antoni Duran Lleida estatuko hauteskundeetan buruzagi garailea da. Ezbairik gabe, emaitza historikoak dira.

Baina, euforia pasata –Duranek hitz egin eta gero, zale konbergenteek “independentzia” oihukatzeraino–, errealitate gordina gelditzen da. Tsunami urdina benetan gertatu da, eta Espainia espainiarra bere aukera sendoenaren atzean, ezker historiko gutxi duen aukeraren atzean blindatzen saiatu da. Eta horixe da, ustez behintzat, Katalunia eta Espainiaren arteko harreman sistema berria proposatu behar duen Espainia. Politikan ez da ezinezkorik, baina elkar ulertze hori oso hurbil dago ezinezkotik.

Arrastoak laster izango ditugu. Artur Masek hitzarmen fiskal bidezkoagoa lortzen ez badu, bere agintaldia itxitako ebakuntza gelen eta irakasle haserretuen artean makalduko da. Eta denbora gutxi du.

Baina kontua da Kataluniakoa historikoa izan dela, eta, berdin, Valentziakoa. Errepublikaz geroztik lehenengoz, politikoki valentziarra den diputatu batek eserlekua izango du Kongresuan. Joan Baldovíurrundik datorren baina berria den herrialdearekin bat egiten duen berrikuntza da.



Kilikatu Kultura, klikatu euskaraz!



www.gernika-lumo-

euskaraz.com



ELEBIDUNA NAIZ ABERATSA NAIZ



JAIONE LÓPEZ DE URALDE
42 URTE. GASTEIZ

GASTEIZKO EUSKARAREN ASTEA 2011

AZAROAK 27 IGANDEA

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

Zazpikoloroa

Mendizorrotzeko kiroldegian,
12:00etan eta 18:00etan

AZAROAK 28 ASTELEHENA

MINTZODROMOA

Foru plazan, egun osoan

AZAROAK 29 ASTEARTEA

ANDRAKAN

Parral tabernan, 20:30ean

AZAROAK 30 ASTEAZKENA

BIODISKOGRAFIK

Iban Zaldúa eta Xabier Montoia

Kultur Campusen, 19:30ean

ABENDUAK 1 OSTEAGUNA

AZALAK

Liburuaren aurkezpena

Elkar megadendan

RUPER ORDORIKA ETA MARA

Jimmy Jazz aretoan, 21:00etan

ABENDUAK 2 OSTIRALA

XABIER LETEREN OMENEZKO KONTZERTUA

Principal antzokian, 20:30ean

BERTSO-RAP

121 Krew-ko kideak, Iñaki Viñaspre eta
Ekaitz Samaniego

Gora tabernan, 20:30ean

ABENDUAK 3 LARUNBATA

GAZTEHITZ! KONTZERTUA

Lain, Trumbo, Hesian, Kerobia
EH Sukarra, Txapelpunk, Gatibu

Mendizorrotzeko kiroldegian, 17:00etatik 5:00etara



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Basque Government
GOVERNMENT OF BASQUE COUNTRY



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Angel Aintziburu

«Nik afizio mota guztiak izan ditut beti»

Data zehatzak bata bestearen atzean, bertso zaharrak, haurrentzako jostetak, pasadizo xelebreak, karlisten abenturak, Luzaideko olen gorabeherak, eiherak, kontrabandoa, bertso gehiago, pilotariak, mugak, Luzaideko xuka mintzaira, ilargiaren eragina, Ameriketarako migrazioa, beste kantu zahar bat, auzo eta etxeen izenak, Bordel bertsolaria, Manezaundi idazlea, karakotxak edo bolanteak... Gai batetik bestera eramaten gaitu Angelek kasik arnasarik hartu gabe. Angel Aintziburu, urre bete buru.

REYES ILINTXETA

Argazkiak: Dani Blanco

Egun Aintziburu etxean bizi zara baina ez da zure sortetxea.

Ez, hau guk egina da 1964an. Airezko bideetan edo hari xuxenean hemendik kilometro batera sortua naiz ni. "Airezko bideetan" edo "hari xuxenean" euskaldun hitz hauek orain ez ditugu erabiltzen. Nik Bordeleren bertsoetan atzeman ditut. Ene sortetxearen izena Buruxuri zen. Hori ere aspaldikoa dela atzematzen da, zeren eta Buruxuri izeneko borda eta pentzea badira Ondarro-lako aldean. Mugak hori egin zuen aunitz gauzetan: muga zuzenean marraztu zuten eta haren ondorioz etxe batzuk Espainiako alderdian izanik, lurak Frantzia zituzten, eta alderantziz ere bai.

Nola gogoratzen duzu zure haur denbora?

Zortzi senidetan hirugarrena naiz ni. Urte terribleak. 36an gerla izan zen. 35ean etxea erre zitzaigun guri. Doi-doi atera ginen. Lehenago etxeen gaineko estaian bazka eta belarra atxikitzen ziren eta han lotu zen sua. Aita eta ama ohartu ziren sutan zela eta gu atera eta berehala erori omen zen gaineko estaia. Ez dakigu zer gertatu zen. Ke-zilotik, tximiniatik, handik lotu zen edo, ez dakigu. Lau senide sortuak ginen orduan. Bi anaia gazteenak, aita eta ama aitaren sortetxerat joan ginen eta bi zaharrenak amaren sortetxerat. Urte berean egin zuten etxean eta elkartu ginen. Ez da gure haurtzaroa biziki alegara izan, ez, ez. Gerla ondoren aunitz karabinero, guardia zibil, izan zen herrian. Horiek ez

zuten bizi onik uzten hemen. Behar ziren gauzak ez zituzten uzten. Guk ez dugu arazorik izan gauzen atzemateko, jende onak baitziren Bankako aldean, Arnegin eta Ondarro-lako alderdian ere, eta guk beti bildu dugu ogia, artoa, azukrea, txokolatea eta horietakorik. Txokolate ola bat bazen hemen berean, Espainiako alderdian. Jabeak Arnegikoak ziren. Txokolatea egiten zuten biziki ona eta

Nortasun agiria

Angel Aintziburu Luzaideko Buruxuri etxean sortu zen 1930eko uztailaren 3an. Gurasoak ere luzaidearrak zituen eta beti Luzaiden bizi izan da. Ezkondua, bost seme-alaben aita eta hainbat semetxi-alabatxiren aitatxi. Aintziburu euskara eta Luzaideko aspaldiko istorioak maite ditu. Duela hamalau bat urte Nafarroa Behereko Irulegi Irratiko berriemailea da. Aezkoako Irati Irratian mintzo ohi da eta Iruñeko Euskalerria Irratian ere maiz egin izan ditu kolaborazioak. Ezin konta ahala ordu eman ditu artxiboetako paper eta liburu zaharretan informazio bila eta horien emaitza dira berak idatzitako bi liburuak: Jean-Baptiste Etxarrenekin batera *Luzaiden gaindi* (Elkar 2002) eta *Luzaiden gaindi II*, (Elkar 2009). Luzaideko etxeen izenak eta haien istorio txikiak ditu ordenagailuan bildurik, argia noiz ikusiko zain.





Euskaraz

"1854an egin zen Arnegirako burdin bidea. Begira garai hartan zeinen euskaldunak ziren herria eta baita Iruñea ere: herriko etxetik laguntza eta bidea zabaltzeko eskubidea galdegin zuten Iruñean.

Galdera egina zen euskaraz eta handik erantzuna eta onarpena euskaraz bidali zituzten eta enkantea ere euskaraz egin zen, dena euskaraz".

saltzen ziguten nahi genuen guztia, baina ez ginen menturatzen aunitz hartzen, bidean kentzen baitziguten. Ogiarekin berdin egiten zuten. Hemen ez zegoen eta ezin egin, eta gainera handik ekartzen bagenuen aunitzetan kentzen ziguten. Luzaiden izan dira hiru gizon karabiniroen tiroek hilak. Bat gerlan eta gerla pasatu ondoren biga.

Zertan aritu izan zara lanean?

Aunitz gisatara jokatu naiz: ardiekin, behiekin... eta oihanean zura erosi eta saldu egiten nuen. Aizkorarekin eta trenka-segarekin zuhaitzak botatzen ere ibilia naiz. Kontrabandoan ere bai, dudarik gabe. Hemen kontrabandoa ezinbestekoa zen zeren eta lur eremu ttipiak dira, etaazienda mendi aldean egoten da udan, baina negua hor da berriz eta bazkendako eta aterpeendako belarra behar da. Denetarik pasatzen genuen. Gerla garaian



handik ekartzen genuen jateko aunitz gauza eta hemendik eramaten genituen espartinak, oihalak eta galtzak, hemengo gerla bukatu eta instantean hasi baitzen hangoa eta han ere gauzak eskastu ziren. Ogia hemen baino lehenago han zuten ausarki eta handik ekartzen genuen. Ehierak bazituzten eta izugarri irin ona egiten zuten. Elkarren laguntzaile izan gara hemen eta gerla aurretik ere gisa berean. Azken urteetan kamioizalea izan naiz.

Luzaideko jende aunitz Ameriketara joan izan da.

Lehen Argentinara joaten ziren. Aunitz karlista ere gerla galdu zutelarik, Argentinara joan ziren, baina gero hango diruak balioa galdu zuen eta gero Ipar Ameriketara joan ziren aunitz. Aita, hiru anaia eta arreba egon ziren. Anaiak hilak dira, baina arreba han bizi da. Han lurra irauli eta zerradurak egin zituzten eta aziendendako bazkak eta oihana landatu zituzten. Dirurik ez zegoenez, sekulako lur eremuak ematen zizkieten lanaren truke eta aberasten ziren instantean. Gero diruak balioa galtzeak moda hori hautsi zuen. Batzuk berant joan ziren eta ez zuten dirurik egin.

Zu ez zinen joan?

Ez. Ni ez naiz aski ernea izan hara joateko. Ez dakit nik. Herria ez nuen utzi nahi. Egoten naiz aunitz aldez pentsaketan hango jendeak zer sufritu zuten, honat ezin jina (eto-

Zientziaren kutxa

Guneko simulagailu berrietan,
dibertsioa ziurtatuta duzu!



- 4 plazako bi plataforma.
- 9 pelikula ezberdin eta joystick-arekin gidatzeko aukera.



ZIENTZIAREN KUTXA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA



gizarte
kutxa
zuegandik zuegana

Donostia - www.kutxaespacio.es - 943 012 478

rri) egin. Ikustekoa da nola hemengo dantzak eta abestiak segitzen dituzten hor. Herriminak sortzen du hori. Nik moralki sufrituko nuen. Dirua eginen nuen menturaz, baina sufrituko nuen. Hemen ere ongi bizitzen da, aski saiatuz gero. Badakizu bizian zer den gauza interesantea? Ekonomikoki bizitzen ikastea. Erran zaharrak dio badirela pobreak dirurik baizik ez dutenak. Beti sosa, beti dirua. Dirua behar den gauza da baina moralak balio handia du. Morala galtzen bada ez da diruarekin ordaintzen. Anekdotak bat migrazio kontu hauen inguruan. Izan dira truku politikak: aldi batez baziren Luzaidetik hogei bat gazte Ameriketara joan beharrak, baina behar zuten idazten eta irakurtzen jakin. Hemengo sekretario Marcos Flores izeneko batek ezarri omen zien idazten zekiten hamarrei ez zekitela eta ez zekitenei aldiz, bazekitela. Horrela hauei ez zieten ezer exijitu, eta besteei bai, baina orduan erakutsi zuten idazten zekitela eta denek pasatu zuten.

Kontakizun hauetako anitz ahoz aho transmititu izan dira urtetan. Zuk ere hala jaso dituzu?

Lehen bazen ohitura arratsetan, supazterrean egoteko, batez ere neguan gaua luzea zelarik eta hor hasten ziren bal-bal-bal gauzak erraten. Belaunaldiz belaunaldi hantxe egoten ziren. Haurren jostagarri baziren aunitz istorio. Orduan ez zen oraingo panpinarik eta halakorik. Haurrak ginela xirulak egiten genituen. Laira bat hartu izerditan zelarik, larrua atera eta horrekin xirula egiten zen. Edo istorio kontan hasten ziren. Haur txikiei eskuko erien izenak erraten zizkieten, adibidez: “Eri ttikia, haren mutila, lanperero, lanpetit eta zorri hiltzailea”. Edo beste hau: “Honek xori bat ekarri, honek bipildu, honek saltseatu, honek dastatu eta tripa handi horrek dena jan”. Beste bat kantatzen genuen: “Kukurruku/ Zer du oilarrak?/ Buruan min/ Zerk egin?/ Axerikok/ Non da axeriko?/ Sasipean/ Non

San Kristobaleko ihesaldia

“1938ko maiatzaren 22an Iruñeko San Kristobaleko presondegitik eskapatu ziren ia 800 preso eta harrapatu edo hil zituzten hiru salbu besteak. Hiru horietarik bigak hemendik pasa zuten muga. Hemengo batzuk anitz lagundu zieten eta Arnegitik zaldiz eramanez omen zituzten Donibaneratz. Han ostatu hoberenean ezarri omen zituzten eta handik Argentinako alderatz, uste dut, pasatu zirela”.



da sasia?/ Suak erre/ Non da sua?/ Urak itzali/ Non da ura?/ Idiak edan/ Non da idia?/ Alorrean/ Zer ari da?/ Artoa ereiten/ Zerendako da artoa?/ Oiloendako/ Zerendako dira oiloak?/ Arrautza egiteko/ Zerendako dira arrautzak?/ Apezendako/ Zerendako dira apezak?/ Meza emateko/ Zerendako dira mezak?/ Gu eta mundu guztia salbatzeko!”. Gure haur garaian oparirik ez zen egiten. Bazen morroduta. Amatzik morroduta igortzen zidan eguberri guztiz. Morroduta ogi mota bat zen. Ogi berezia. Aitatxik, aldiz, diru pixka bat edo zenbait jostagailu oparitzen zigun.

Nondik heldu zaizu historiarekiko zaletasuna?

Nik afizio mota guztiak izan ditut beti, baina ez nintzen heltzen denak betetzera. Banuen dantzarako, pilotarako afizioa... Karakotxe-kin, bolanteekin, hasi nintzen dantzan 15



EUSKARA ZERBITZUA

Herriko plaza z/g 20100 Errenteria
Telf. 943 44 96 13 euskara@errenteria.net



UDAL EUSKALTEGIA

Miguel Zabaleta 14, 20100 Errenteria
Telf. 943 44 96 80 euskaltegi@errenteria.net



ERRETERIAKO UDALA



OFF THE RECORD

Pasadizoak

Euskarabidearen <http://mediateka.fonoteka.com> webgunean entzun daitezke Angel Aintzibururi eginiko hainbat elkarrizketa. Horietan bere ahotik Bordel bertsolariaren pasadizoak eta bertsoak, karlisten garaiko istorioak, haurrentzako josteta eta kantuak, sendabide naturalak, pilotari zaharren anekdotak eta hamaika kontu gehiago aditu ahal izanen ditugu.

urterekin. Eskolan historiarako zaletasun guttiena nuen, baina gero gustatu zait jakitea lehenagoko historiak. Historia zaharrak nahiago ditut. Ahal dudan denbora guztia ematen dut irakurtzen eta gauzak bilatzen. Orain ez dut ongi ikusten, baina honetan pasatuko nuke denbora guztia. Luzaideko etxe guztien kontakizuna bildua dut, zutik diren etxeak eta azken mende hauetan desagertu direnak ere bai.

Kantu saio anitzetan parte hartzen duzu, eta bertso zahar pila dakizu buruz. Bertsotan ere saiatu zara?

Nik bat-batean aritzeko ez dut prestasunik izan. Horretarako behar da gaztetik hasi eta nik banituen beste buruhauste batzuk gazte denboran.

Zer da euskara?

Aunitz da. Euskara da hizkuntzarik zaharrena. Beste hizkuntzen beharrik izan ez duena. Harribitxia da, altxatu beharko luketena eta begiratu beste bitxiak begiratzen diren bezala. Baditu aunitz gauza beste mintzamolde batzuk ez dituztenak. Soizu, adibidez, zenbat hitz dagoen gaztelaniazko *“celo”* adierazteko, animalia bakoitzak berea du: ardia arkara, ahuntza ahunzkara, behorra giri, behia susarra, zerria irausi, oiloa koroka, katua ohara... Ea zer hizkuntzek dituzten gauza horiek! Enetako mintzamolderik politena xuka da. Goxoa da. Zuka errespetua da, toka ausartzea da eta politena xuka. Haur bati xukaz aritzea oso polita da. Beste gauza bat: zer da Nabarra? Hizkuntzako hitzik zaharrenetarikoa da. Zerengatik? Egun guztiz iluntzen duelakotz. Eta iluntzerakoan ilunabarra da. Ez da argia ez iluna. Eta Nabarrari izen hori jarri diote lurraren kolorearengatik. Nabarra-ko lurrak baditu kolore guztiak, sasoi desberdinetan, nahi baduzu, baina guztiak.

Edukazionea

“Zortzi-hamarreko jende talde batean baldin bada bat erdalduna, edukazionez denak erdaraz. Badira oraino iruditzen zaienak aberatsagoa edo dotoreagoa dela erdara, eta hasten badira espainolez edo frantsesez nik erraten dut ‘ederra da hau, denak euskaldunak eta espainolez aritu behar!’”.

Nola ikusten duzu euskararen etorkizuna?

Euskal Herriko etorkizuna kontzientzia da. Ari da aunitz jende lanean horretan. Bagenu kontzientzia euskaraz egiteko, euskara salbatzea litzateke. Badira milaka haur euskaraz dakitenak baina hor dago arriskurik handiena: euskaraz ikasita ere erdaraz hitz egiten dute. Denek zerbait egin behar dugu. Nik uste dut behar dela inarrosi zerbait gisa. Iratzarri sentimenduak. Baina ez da harritzekoa. Euskara egona da zoko batean bezala mendeak eta mendeak, baina orain egunkariekin eta diskoekin zabaltzen ari da gehiago. Ez dut uste galduko denik. Behar da kontzientzia hori sarrarazi, euskara dakitenak mintza daitezzen. Duela 40, 50 urte zegoena eta orain dagoena, Iruñean adibidez, ezin da konparatu. Zenbat haur euskaldun dagoen orain!

Naturatik gertu bizi izan zara beti.

Erranahi handia du naturak. Beste gauza batzuetan hausten dugu orain burua eta hori uzten dugu bazterrerat. Begira ilargiaren gorabeherak. Ez diogu kontu handia ematen baina ilargiak ikaragarriko erranahia du gure bizitzan. Haurrak ttipiak direlarik zizareak ukaiten dituzte eta ilargi aldaketan ageri dira. Arbola mozten baduzu neguan beherapenarekin lairak gutxi haziko dira, baina mozten baduzu gorapenarekin aterako dira gora berehala. Aunitz gauzetan naturatik ikaragarri urrun bizi gara orain. Lehenago burdina oletan urtzeko aunitz su behar izaten zuten eta oihanak soilitzen zituzten horretarako. Eugiko armaola bertze toki batera eramane behar izan zuten egurra finitu zelakotz. Baina bazekiten, bere heinean, egurra nola ekarraz lasterrago. Arbolak ez zituzten sekula azpitik mozten baizik eta bi, hiru metroetarik eta gorapenarekin adarrak botatzen zituzten, lehenbailehen goiti joan zitezten. Horrelakoak badira aunitz adibide. ■





Biribilko

Bilbo Komertziala





Olentzero & CO! Musikaleko **DVD-a** salgai

DVD-aren
prezioa:

14 €

(Bidalketa gastua **barne**)

Goiena Klubeko
kideentzat prezio
berezia:

12 €

(Bidalketa gastua **barne**)

Eskatu eta zure etxeko buzoian jasoko duzu!


GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta




KRISIAROAN

GREZIARRREK BATASUN NAZIONALEKO
GOBERNUA ERATUKO DUTE...



ITALIARRREK SALBAMENDU NAZIONALEKO
GOBERNUA ANTOLATUKO.



2 ESTATUAN ZATIKATURIK, ESPAINIA
KO BOZETARA **2** ADMINISTRATZIOETAKO
EUSKAL ALDERDIAK **BEREIZ**
JURKEZTUKO DIRA...

< BILDUREN ALIANTZA
Rouco Varelá
ETA
Cayo Lora
UZTARTZE bezala da >
ERKOREKAK

~~EDERKI UZTARTURIK
ESPAINIARRAK,
ETA GU UZTARPEAN!~~

TTAKUN (H)ERRENKA

Fibra

Idorrieriaren gainean eginiko azken ikerketa epidemiologikoen arabera, Euskal Herriko biztanleriaren %20 inguruk horrelako arazoak ditu. Ikerketa askotan frogatu omen denez, emakumezkoek jasaten dute idorreria, 65 urtetik gorakoek batez ere. Lazkao herriko Txindoki gerontologikoan horregatik dakite zuntz eta likidoz hornituko gaituzten fruta, lekale eta barazkiez osaturiko dieta ez hartzea idorreria sortzen duen arrazoi nagusienetakoa dela. Uxue eta Beñat maiteak, nik banekien ETAre azken komunikatuari esker, iraganeko gorotz gogor eta lehorregiak neke handirik gabe kanporatuko genituela hamarkada desorekatuetako idorreri fisiko eta mentalaren ondoren, baina Txindoki zentroan orain aste batzuk gertatukoak nire pronostiko baikorrenak ere motz utzi ditu. Txindoki gerontologikoa zabaldu zutela lau urte bete dira aurten, eta ospakizunerako Manolo Escobar kantaria gonbidatu zuten. Manolo Escobarrek pare bat abesti kantatu zituen bukaeran, elkartu zen jendetzari I. Txindoki sariagatik eskerrak emateko. Eta bitrinar gordeko zuela esan zuenean, hara, nik “letrinan” ulertu. Azkura gogorra belarrietan ere daukadana. Libratzeko arazoak izan ditugu euskaldun askok azken 40 urteetan, eta euskal erakundeek eta administrazioek gure sabeleko muskulatura erreprimituaren normalizazio urgentea bultzatzea nahi dute, euskaldunok leku guztietan (lantokian, kalean, etxean...) libratzeko gogoia sumatu orduko, gogoari eutsi ez, eta komunera ordu jakin batean joateko ohitura hartzen saiatu gaitezen. Ohikoena egunero libratzea da, baina pertsona batzuek mendeak baino tarte luzeagoak izaten ditugu. Idorreria iragankorra denean ez du garrantzi handirik, baina ohiko


CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Apaolaza

bihurtzen denean, arazo larria da sufritzen duenarentzat. Idorreriari aurre egiteko, libratzeko ohitura txarrak baztertu egin behar dira. Larridura edo estresa izanez gero, komeni da lasaitzen ikastea eta larridurari aurre egiteko bitartekoak lantzea. Eta barazkiak, lekariak eta frutak egunero jan behar dira. Fibra edo zuntz asko dute eta fibra jatea oso komenigarri da. Zuntza duten jangaiak hartu behar dira otordu guztietan. Hesteak estimulatzeko biziki osagai onuragarri da eta libratzeko orduan ere lagungarri izaten daki oso fibrak. Zuntzari esker, gorotzak azkarrago joaten dira hesteetan. Jende adimentsuarentzako telebistak ere fibra behar du bere hesteak garbitzeko, eta Euskaltelek zuntzaren onurak ondo ezagutzen ditu. Alegia, behar bezainbeste zuntzik ez hartzean, gorotza ez dago kanporatua izateko egoera egokienean. Gure erosotasun fisikoak eta mentalak zenbat behar eta horixe ekartzen digu Euskaltelek bere azken publizitate kanpainan: zuntzaren indarra. Oso aurrerapauso garrantzitsua da. Bizitza erosoagoa egiteko aukera izango da ezbairik gabe: telebista-saioetako barruko zikinkeria etxean jasotzeko zailtasunak desagertuko dira. Eraginak nabarmenak, azkarrak eta oso onak izan dira hasieratik bertatik. Adibidez, Telebistaren Akademiak antolatutako eztabaida, Rubalcaba PSOEko Espainiako presidentegiaren eta Mariano Raxoi PPko presidentegiaren artekoa alegia, abiadura azkarrak kanporatutako gorotza bezala bidali eta jaso genuen gure etxean, interferentzia edo zaratarik gabe gainera. Kaka puska ederra, etorkizuna hori izango dela dirudi eta neurri handi batean zuntzak eta gainerako bitartekoak ahalbidetuko dute. ■



Libratzeko arazoak izan ditugu
euskaldun askok azken 40 urteetan,
eta euskal erakundeek eta
administrazioek gure sabeleko
muskulatura erreprimituaren
normalizazio urgentea
bultzatzea nahi dute



Koldo Aldalur

KAZETARIA

Biharko sokari tiraka



amaika aldiz entzun dugu azken asteotan garai berri baten atarian gaudela eta estrategia zaharrak berriitu beharko ditugula aurrerantzean. Bale, konforme.

Oraindik ditzosozko “gu” hori definitzeko arazoak baditugu ere jo dezagun bagarela, eta jakina, bagarela badakigula.

Baina “besteek” aldatuko al dituzte euren estrategiak? Hasi gara galderekin, seinale txarra.

Harira. Orain urte batzuk Nazioarteko Sokatira Federazioak (TWIF) euskal sokatirlariak nazio mailako lehiaketetatik at utzi zituen. Ez zien debekatu soka beraien aldera eramaten saia zitezen, baina soilik utzi zien klub arteko txapelketetan parte-hartzen.

Urteetan, gureak goi mailan arituak ziren Europako nahiz munduko txapelketetan idatzi gabeko hitzarmen bati esker. “Itxurak gordez edo itxurak eginez, sinboloen borrokan murgildu gabe parte har ezazue eta ospakizunen garaia iristen denean nahi duzuenaren egin” zen hainbeste urtetan indarrean izan zen hitzarmen haren muina.

Egun batean, arrazoi osoz edo ez, hitzarmena apurtu genuen arte. Harrezkeroztik sokatiraren maila jaitsi egin da gurean. Zaila da negu beltzeko entrenamenduetan atzamarak eta gerriak apurtu arte sokari tiraka aritzea gero nazioarte mailan nor garen erakusteko aukerarik ez badugu.



DANI BLANCO



Garai berri batean
izanik, estrategia
zaharrak berritzeko
asmotan jo zuten
gure ordezkariak
geurea defendatzera,
baina ez da egoera
berririk izango
agintea duenak
garaile sentitzen
badu bere burua



Eta gure ohiturari jarraituz TWIFeko arduradunei bota genien errua, batik bat Co Koren presidenteari. Holandarrak utzi zuen bere kargua eta bere ordezkari Catal McKeever ipar irlandarra jarri zuten. Pasa berri den urriaren 22an bilera bat egin zuten Belfasten gure ordezkariak eta TWIFeko arduradun nagusi berriak eta iparraldetik etorri zaigun haizeak behe lainoa besterik ez digu ekarri.

Euskal Herriak sokatira arautzen duen erakundearen barruan kide ofiziala izatea du helburu eta eskaera erabat legezkoa da, batik-bat kontuan izanik sokatirak Espainiako Estatuan ez duela ordezkariarik. Hau ere ez al da arazo politiko baten ondorioa?

Garai berri batean izanik, estrategia zaharrak berritzeko asmotan jo zuten gure ordezkariak geurea defendatzera, baina ez da egoera berririk izango agintea duenak garaile sentitzen badu bere burua. Garaile sentitzeak, haien zat behintzat, esan nahi du norbait menpekota dutela, eta hori bide okerra da.

Marra berri bat jartzearen aldekoa naiz. Orain artekoa eta hemendik aurrerakoak. Lehenak erakuts dezala geroan atzea nola dantzatuko dugun, baina zein doinutan mugituko garen geuk erabakitzekotan.

Sokatiran atzera egiteak balio du, baina aurkaria erakarririkotan errespetuz bostekoa ematen jakin behar da ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



garaian nabarmentzen da askotan jendea. Gure koadrilan behintzat, hala izan da. Txisteak sortzeko gauza direnak izaten dira bestela ere adimentsuenak eta berez edozein egoeran besteentzat erreferentzia bilakatzen direnak. Inor mindu gabeko ironia erabiliz, bere abstrakzioek pentsatzeko bideak irekitzen dituztenak dira taldean estimatuenak, nolabaiteko lidergoa irabazten dutenak. Era berean, tontoenak bereizteko test politik dira egindako txisteak, graziosak izaten saiatu eta pena besterik ematen ez dutenak nabarmentzeko. Eman dezagun

Adarra jotzeko

Urkulluri tximistak jo eta etxea suak hartu eta erretzen zaiola. Suertekoa izan eta garaiz irtenda ez du bera suak harrapatu. Herriko kazetariak honela ematen du berria: “Lau xigarro xixtrin pixtu eta bertan kixkali”. Ez dut duda izpirik egiten, hori irakurrita bera ez ezik ingurukoen lehen desioa mezulariari Sanjoanak itxaron gabe su ematea litzateke. Normala. Gizatiar oso, burura txisterik ez lekarkeena. Bermeoko EAJren mitinean Urkulluk kazetari tontoenena egin du uholdeak lau ur tiantorra ekarritz, Bilduren bizkar jarraitzaileen txaloak, bibak eta algarak piztuz. ■



Joxerra Aizpurna

INDUSTRIA INGENIARIA

Murritzketak baita I+Gn ere

Ikerketa generiko deitzen den horretatik gutxitan atera ohi da berehalako emaitzarik. Ondorioak, izatekotan, teknologia mailan nabaritzen dira nagusiki, eta herrialde aurreratuenen esku izaten dira, horietan egiten baita ikerketa generiko ahalmentsuena. Ikerketa aplikatuaren oinarria da. Hau da, produktuetatik hurbilago dagoen ikerketaren funtsa da eta herri aurreratuenetako politikariek euren herrientzat duten amets teknologikoen isla izaten da.

Euskal Herrian bultzada handia izan du ikerketa generikoak, eta kopurutan, Espainian ez bezala, Europako batez bestekotik hurbil dagoela esan daiteke.

Baina ikerketa generiko horrek kontuan hartu al ditu inoiz Euskal Herriko interesak? Aintzat hartu al dira, adibidez, zaborren kudeaketa efiziente eta bateratua; edo herrien energia autosufizientzia; edo errepide, aireportu nahiz itsasportuen kudeaketa globala, beti ere garraioa optimizatzeko eta txikizioak saihesteko helburuz; edo euskararen eta teknologia-aren arteko zubiak zer onura izango lukeen nazioartean; edo gure memoria historiko-kulturala hedamodu berrietara ekartzeak zer teknologia garatuko lukeen...



DANI BLANCO



Gure beharrak eta
ametsak kontuan hartuko
ez dituen ikerketa-
politikak bost inporta
zaizkit, eta beraz,
abiapuntu horretarako
arrazoi desberdinak
izango baditugu ere, bat
nator Eusko Jaurlaritzak
hartu asmo duen
erabakiarekin



Ez. Nire ustez, ez. Ikerketa globalizatua dago. Eta horren aitzakian globalizazioan agintzen dutenek ezartzen dituzte ikerketaren helburuak, lerro nagusiak. Ondorioz, Euskal Herriko gobernuetako administrazioek helburu globalen administrazio-lanak besterik ez dituzte egiten. Estatu-multzotako multinazional zehatzen helburuak administrazten dituzte hain justu.

2012rako, administrazio publikoen aurrekontuak behera doaz, gutxiago edo gehiago, eta oraindik behin betiko erabakia hartu ez bada ere, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailetik atera diren zurrumurruen arabera, enpresentzako diru-laguntzak ahalik eta gehien mantentzea da borondatea, eta ikerketa generikoari, berriz, errotik moztuko zaio laguntza.

Gure beharrak eta ametsak kontuan hartuko ez dituen ikerketa-politikak bost inporta zaizkit, eta beraz, abiapuntu horretarako arrazoi desberdinak izango baditugu ere, bat nator Eusko Jaurlaritzak hartu asmo duen erabakiarekin.

Hel diezaiozun behingoz lekuan lekuko lurrak, pertsonak eta kulturak lagunduko dituzten irizpidei, eta ihes egin dezagun globalizazioaren moztarpean ezkutatzaren diren botere ekonomikoek ezartzen dituzten politiketatik. ■



TXANDAN

Castillo Suarez



Egunero irakurtzen ditugu genero indarkeriaren adibideak prentsan. Maiz begiratu ere ez ditugu egiten, baina nago berri horiei erreparatzen diegunean, beti dugula emakume mota jakin bat buruan: heldua edo adindua, oinarritzko ikasketekin, atzerritarra, bikotearen menpekota ekonomikoki... Horregatik agian ez zaigu burutik pasatzen ere egun nerabeak diren horiek tratatu txarrak jasango dituztenik urte batzuen buruan.

Haatik, bortizkeria ez da bakarrik labankada, zartakoa edo heriotza; ez da bakarrik helduen kontua.

Indarkeriaren haziak

Izan ere, nahi baino gehiago dira nola-baiteko tratatu txarra onartzen duten neskek gaur egun. Badira mutil gazteak neskalagunak beren ingurutik isolatzen

dituztenak eta kontrolatzen dietenak zein arropa mota jartzen duten, nola makilatzen diren, zein zale-tasun dituzten, norekin ibiltzen diren eta sakelakora deitzen dituzte etengabe zertan ari diren jakiteko. Jazarpen hori sotilagoa da batzuetan eta nabarmenagoa bestetan. Batzuentzat maitasun frogak omen dira, baina indarkeriaren hazia dira egiazki, eta, beraz, oso kontuan hartu beharrekoak. ■



ZIRTAK

Jose Inazio Basterretxea

IDAZLEA

Gerra eta bake dantzak

Munduan beste asko legez, orain zortzi aldiz berrehun urte jaio zen, jaio, Artemio izenaz ezaguna izango zen umea. Antiokia urrunean ikusi zuen hark lehendabiziko argia. Gaztetan militar bizimodua hautatu zuen, eta gerora kristau-fedea zabaltzeari ekin zion: sutsu eta indartsu. Esker oneko, santutasuna aitortu zion Eliza amak: fedegabeek burua eta soina apartatu zizkiotenean, heriotza krudel baten ondoren.

Santuen izendegi kristauak beteta daude horrelako martiri eta dontsuekin. Denboran eta lurretan hurbilago pausaturik, hor da, hor, Loiolako Inazio: gerretan mankatu ostean, legio kristauak fundatu eta gidatu zituen.

LUZE ETA EBATS. Gerraren alpe-rra ezagutu ondoren, Antiokian eta Loiolan bezala munduaren lau bazterretan, askok aldatu du bere norabidea: bizitza armatu eta militaretik, bizimodu filosofiko eta teologikora; baita politikora ere. Baina, gerratik bakera igarotzea ez da beti erraza izaten.

Bakezko ekintzan ere, *modus operandi* militarra darabilte batzuek: hierarkia denen gainetik, ortodoxia eta maximalismoa denaren oinarri. Egia esan, gerra-dantzeta-ko urratsak dira horiek; ez bakezkoak.

Politikari askorekin antzera gertatu ohi da: musika aldatuko dute, soinua; ez pausua, ez oin-urratsa. Beti aurrean egoteari eutsiko dio auresku denak, eta atzeko lozorroa biziko du atzeskuak.

Dantza jaunjetan eta *Mutxikoetan*, ezaguna da *luze* alde bererako koreografia-pausu zuzena. Berdin balio du *luze* dantza-pausu horrek hainbat dantzatan, berdin egiten da batean zein bestean: beti aurrera begiratuta, beti alde bererantz ibilita.

Ebats, oster, bihurkaria da: dantzaren



INIGO AZKONA

zentzua aldatzen du eta, hutsean eta itsuan aurrera egin ordez, buelta-erdi eginda –zia-boga, nahi bada–, dantzaria jartzen du plazaren beste aldera begira.

Hartara, panoramikoagoa da *ebats*: aurrera bezala, atzera eta ondora ere begiratzen baitu. Osoagoa da, ikuspegi anitzekoa.

ANTREXATAK. *Luze* pausuetan, maisu izan ziren bai Artemio bai Inazio bera ere: gerran bezala, baita bakean ere. Eta haien antzera beste asko eta asko. Orduan legez, baita orain ere. Alde beretik begiratu izan diete horiek guztiek gudu-zelaiari eta plazari: indarraren oholtzatik, ortodoxiaren talaiatik.

Baina, gerratik bakera jauzi egiteak abagune berriak aktibatzen dituela sinesten badu inork, lan-tresnak eta lan-sistema aldatu beharra ditu. *Ebats* egin beharko du noizean behin, plazari begiratu eta hura sentitzeko.

Zeren bake-dantzak ez baitu bakarrik gerra-dantzaren soinua aldatu behar, ezpada ze dantza-urratsa bera ere. Alegia, musikaz gain, koreografiaren urratsak ere ditu aldatu beharra.

Zorion eta zoritxar beteko egun batez igaro berri dira gure artean hauteskundeak, azaroaren hogeitazero horretan. Botazio-egunaren aurreko kanpaina zein botazio-biharamuneko egunetan, Artemioren eta Inazioren eskolakoak ikusi dira plazetan: *luze* asko, baina *ebats* gutxi. Ibiliko ziren, ibili, musikak aldatuta. Agian. Baina dantza-pausuak, ez. Tamala.

Bake-musikarekin gerra-pausua dantzatzea da esne guriari ura botatzea. Azkenean, biak galtzen dira: esnea eta ura.

Erdizka, ezker, eskuin airian, antrexatak kurri... Artemioren eta Inazioren *luze* dantza-pausu estuetatik harago ere bada, plazan, mundu bizi eta erakargarria.

– Musikari, jo musika, jo! ■



Gerratik bakera jauzi egiteak abagune berriak aktibatzen dituela sinesten badu inork, lan-tresnak eta lan-sistema aldatu beharra ditu. *Ebats* egin beharko du noizean behin, plazari begiratu eta hura sentitzeko



irudia:

Antton Olariaga

BERTSO BERRIAK

Julio Soto

Esnatzeari jarriak



GALDER IZAGIRRE/XDZ

I

Hiru urtaro pasa ostean
goxo-goxo lo tripotan
gaur bezalako bultzadarik ez
du sentitu gehiagotan
bata zuridun batek jarri du
bere amaren besotan
ingurukoek irripar eta
umea negar malkotan
agian beste pixka batean
segi nahiko zuen lotan.

II

Hogeita hamar urteko 'gazte'
batek gaua, dantzan, irriz...
beti beste bat eskatzen duen
zerbezaz, txupito gorritz...
etxera heldu da zerraila non
dagoen ezin igarriz
amak esnatu du bazkaltzeko
buruko minez, egarriz...
erabaki du parrandarik ez
duela egingo berriz.

III

Berrogeita bi urteko heldu
bat langabezian, larri
hamaiketatik ardi kontatzen
eta gaur bezala sarri
buelta ta buelta, buelta ta buelta
lorik ezin erakarri
sabaia, bera, bera, sabaia
geldi, begira elkarri
egunsentiak egun berririk
ezingo dio ekarri.

IV

Gizon ezkondu baten bizio
errutinatu egia
"Bai, bai, berandu iritsiko naiz".
Gezurak diren egiak
irripar gaizto bat erakutsi
du pareko aurpegiak
jolasaldia amaitu eta
lehertuta daude biak
bera ez den ohe batean
zabaldutitu begiak.

V

Laurogeita bi urteko attun
bat ohean dagoela
kukurrukua entzun aurretik
bonbillak argitan gela
edalonztitik hortzak atera
ditu goizero bezela
baldarka jantzi ditu soinean
galtzak, atorra, txapela...
berak oraindik ez daki azken
esnatzea izan dela.

VI

Umore onez esna zaitezke,
mundua madarikatu
lehengo aldiz esna zaitezke,
hil kutxa batean sartu
adar pareaz esna zaitezke
edo ardiak kontatu
eta noizbait nahi bazenu mundu
hobe batean esnatu
segi ezazu amesten baina
lo egiten, lo ez hartu.



DOINUA: Itsasoari begira.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Berri Txarrak

«Hozka egiten jarraitu nahi dugu»

Ia bi hilabete Venice Beach-en (AEB), Ross Robinsonen estudioan grabatzen pasa ondoren bueltan dira Berri Txarrak, *Haria* diskoa besapean. Aspaldian baino metaleroago, inoiz baino poperoago, kontrastea bilatu dute estudioko zazpigarren lanean. Aste honetan aurkeztu dute eta hurrengo otsailetik aurrera ekingo diete kontzertuei berriz ere.

GORKA BEREZIARTUA

Hariaren soinuan *Payolaren* baino gehiago antzematen da ekoizpen lana, geruza gehiago ditu. Ross Robinson ala Steve Albini, bietako zein aukeratu zenukete?

Gorka Urbizu: Ez nuke bat ala beste aukeratu. Grabatzerako orduan bi muturrak probatu ditugu, aurreko diskoa oso berezia izan zen alde horretatik, zortzi egunetan grabatua, dena oso gordin, ia ez zegoen geruzarik, polaroid argazki baten modukoa zen. Bazegoen Oulipo izeneko literatura talde bat, "E" letrarik gabeko testuak edo aditzik gabeko testuak egiten zituen; ba, horren antzeko zerbait izan zen: "Egin dezagun disko bat, ezingo duguna batera editatu, ea zer ateratzen den". Orain beste muturrea joan gara, zortzi egunetik pasa gara ia bi hilabete estudioan pasatzera, lehenengo aldiz benetako ekoizle batekin lan egitera, kanten inguruan bere iritzia eman duena.

Aldi berean, bi mutur izanda ere, Robinsonek eta Albinik badaukate puntu komun bat: biek musika maite dute beste edozeren gainetik eta kanta errespetatu egiten dute; Venicen bi hilabete pasa ditugun arren, hau ez da ultra-ekoiztutako disko artifiziala. Zer nahi genuen ez genekien baina zer nahi ez dugun, hori argi daukagu.

Galder Izagirre: Biek ihes egiten dute gaur egungo grabaketa estandar eta oso produzi-tuetatik. Joan eta deigarria egin zitzaigun lehen gauza izan zen klaketarekin ez grabatzea. Atera kontuak, gaur egun badirudi klaketa gabe ezin dela diskorik egin, katastrofe izango litzatekeela, baina beraientzat ez da horrela; arlo teknikoan baino gehiago

sinesten dute musikariak barruan daukan horretan.

Gorka Urbizu,
David Gonzalez
eta Galder
Izagirre,
Lekunberrin.

Musikazuzenean.com webgunean idatzi dituzuen grabaketako kronikak leitu eta sumatzen da ekoizleak ondo zukutu zaituztetela.

G.U.: Ross Robinsonen leienda hori da, taldeei



DANI BLANCO

gaizki pasazten diela; zauri baten bila dabil beti eta topatzen baldin badu... Berak “*brain-surgery*” esaten dio, harrapatzen zaitu puntu ahulean eta hortik tiratzen du, gero, grabatzeko momentuan, nabaritu dadin benetako zerbait egiten ari zarela. Sekulako tertuliak izaten genituen grabatu aurretik, edozein kanta egin aurretik “hau zertaz doa?” galdetzen zuen. Ez

gaude ohituta, normalean letragileak etxean egiten ditu hitzak eta nahiko gauza intimoa izaten da.

G.I.: Musikari bakoitzaren muga bilatzen du: nahiz eta bateria grabatzen egon hirurak ari ginen jotzen zuzeneko batean bezala eta errepikapen bakoitzarekin berak ondorio asko ateratzen ditu; gutxi gorabehera bakoitzari puntua hartzen dio.

Lehortzen kantaren sarrera Korn-ek lasai asko sinatzeko modukoa iruditut zait, nu-metal kutsua du. Etxetik hala eraman zenuten edo grabatzean aldatu zen?

David Gonzalez: Egia esan, bateria guztiak grabatu ondoren egindako *jam* bat da, inprobisatua. Riff nagusia geneukan, jotzen hasi ginen, garapen bat egin genuen eta grabatuta utzi. Rossi asko gustatu zitzaion eta abesti bat moldatu zuen.

G.I.: Kantaren minutu bat edo bi behar genituen eta hortik aurrera lasai jotzen hasten zara, badakizulako ez duela balioko; eta sekulan ez duzu jo hain lasai, eta sekulan ez dituzu inprobisatzen horrelako gauzak grabaketa batean. Baina kanta horretan bai eta azkenean, bi minutu izan beharko zukeena, oso-rik gustatu zitzaion berari.

Inprobisazioari ohikoa baino tarte zabalagoa utzi diozue beharbada?

D.G.: Etxeko lanak eginak eraman ditugu, baina han ikusten duzu ekoizleak askotan nahiago duela beste bide batetik joatea edo gehiegi ez pentsatzea... Gorkari, adibidez, gitarrekin...

G.U.: ... Bai, nire muga hor aurkitu zuen. Esaten zidan “zenbat eta gutxiago pentsatu, orduan eta musikari hobea zara”. Etxetik moldaketa bat neraman eta esaten zidan: “Ondo dago, baina perfektuegia da” edo antzeko zer-



Luzea eta bitxia izan da Hariaren grabazioa: lanerako plan nahiko idealizatuarekin joan zirela diote Berri Txarrakeko kideek eta behin estudioan sartuta gauzak uste baino mantsoago joan direla. Venice Beach ezagutzeko parada izan dute behinik behin, Galder Izagirre bateria-jotzailearen argazki hauek erakusten dutenez.

G.I.: ... hemendik aurrera hori esango du elkarriketetan! [barrez].

Kantak azala aldatzeaz hitz egiten du, aro berri bat hasteaz; bizi dugun garai politikorako egokia, inondik ere. Nahita egina da?

G.U.: Gure kanteak askotan izaten dute bikoiztasun hori, ez dakizu erlazio bati buruz ari zaren, gure herriari buruz ari zaren... batzuetan bien arteko zerbait da. Baina kanta horrek adierazi nahi du taldeak suge izaten jarraitu nahi duela. Azken bi urteak ez dira oso samurrak izan eta hau da orain atera dugun emaitza. Musikari izatea narrasti izatearekin lotzen dut, iruditzen zait badaudela parekotasunak; hozka egiten jarraitu nahi dugu, aldaketak aldaketa hemen gaudela adierazi. Baina tira, Txoria txorirena ere ez da txarra! [barrez].

Txinaurriak diskorako egindako kantaren oihartzunak izango dira...

G.U.: *Makuluak* kanta Bertold Brechten poema batekin egin dugu disko honetan eta Laboaren omenez egin genuen kanta ere, *Lihuraren kontra*, Brechten poema batekin egina da. Laboaren itzala beti hor dago.

“Onartu behar izan dugu gugan zegoen melodia eta pop kutsua: atea ireki eta sartzen utzi diogu”

GALDER IZAGIRRE, BATERIA-JOTZAILEA

Kanta horretan eta beste batzuetan intentsitate aldaketa handiak egin dituzue.

[Barre egin dute]

G.I.: Hasi ginenean ikusi genuen amankomunean geneuzkan gauza batzuk zirela egurra eta pop-a eta interesgarria izango zela bietan sakontzea. Askotan pertsonak eta taldeek aurre egin behar diote euren iluntasunari, baina kasu honetan gure argitasunari egin diogu aurre. Onartu behar izan dugu gugan zegoen melodia eta pop kutsu hori, atea ireki eta esan diogu “sartu”. Beti eduki dugu “ei, gu talde kañeroa gara” esa-

teko joera, baina argitasuna, melodia, hori ere gudan dago, egurra emateko gogoarekin batera.

G.U.: Halere, badago batasuna kantaren barruan: erdiak kontatzen du makuluekin ibiltzearena, sendagilearengana joatea... Eta bigarren partean, alderdi poperoena sartzen denean, hitzak ere positiboagoak dira, "orain sendatuta nago, orain banabil..."

Gure artean broma egiten genuen, hau "pop gogorreko" disko bat zela esanez. Egitura aldetik nahiko poperoa da, baina gogorra eta gordina ere bai. Lagunak ekarri genituen entsegu bat entzutera eta harrituta geratu ziren: death-metaletik hurbil dauden pasarteak, bateriaren blast beat erritmoak... Gauza oso muturrekoak metalaren barruan ere. Baina gero ahotsarekin halako nahasketa berezia sortzen da.

Iraila kanta izango da beharbada Berri Txarrakek inoiz egin duen kantarik malenkoniatsuena.

G.U.: Kanta berezia da, inolako mozorrorik gabeko pop abestia, baina zuzenean sekulako rock jarrera emango diogu; gainera badauka halako *crescendo* bat. Hitzak badira nahiko malenkoniatsuak eta disko honetako beritasunetako bat, beharbada, horixe da, edertasunaren bila joan garela. Nahiz eta soinua gordina izan eta indar handia egon azpitik, lokatz horren gainean badaude kasik lirikoak diren pasarteak, *Irailan* edo *Makuluaken* bukaeran, adibidez.

Disko txarra egitearen mamua ibili omen duzue kantak prestatzen aritu zaretenean. "*Discomalo*"



GALDER IZAGIRRE

deitzen zeniotela leitu dut. Uxatu al dituzue beldur horiek?

G.I.: Bai, kendu dugu beldur hori.

D.G.: Niri gutxitan gertatu zait hain argi izatea, jakitea disko hau benetakoa dela eta disko ona dela.

G.I.: Sorkuntza prozesu batean fase pila bat pasatzen dituzu, badituzu egunak, entsegu batzuk, pentsarazten dizutenak ez duela ezertarako balio, dena gaizki joan da, ondo zegoen guztia zalantzan jartzen duzu, diskoa hasi behar zuen kanta ez zaizu hainbeste gustatzen... Horrelako garai bat eduki genuen eta barre egiten genuen gure artean "*Discomalo*"-ren kontu horrekin, baina benetan zen... [Urbizuk eta Gonzalezek barre egin dute] Ez geneukan objektibitate gure lanean, ez genekien zer ari ginen egiten...

D.G.: ... Heltzen da momentu bat perspektiba galtzen duzuna, baina normala da: gu hirurak lan egiten, entseatzen, kantak entzuten... Eta askotan kantaren erdia entzun eta bagenekien noraino iritsi nahi genuen, baina bide erdian "ze ostiatan ari gara" esanez bezala genbiltzan.

G.I.: Garai horietan intuizioak salbatzen zaitu, nik uste. "*Discomalo*" esaten ari ginen, baina bazegoen zerbait esaten ziguna ezetz, ez zela hain txarra.

D.G.: Batez be kanpoko iritzirik ez daukagunean gertatzen da, bazoaz eta bazoaz eta momentu batean pentsatzen duzu: "Agian urrunegi joan naiz eta bide okerra da". Baina lagun batekin egoten zara, entzuten du edo irakurtzen du idatzi duzun hori eta esaten dizu ondo dagoela. Horrekin lasaitzen zara. ■



Hondarribia

Liburu azoka abenduaren 1etik 4ra, San Pedron

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Zinema

«Bakoitzak aukeratu behar bere bidea»

Horixe Antxon Ezeiza zendu berriak Jexux Ijurkori ARGIAN erantzundakoa, 1983ko elkarrizketa batean. Zinegileak argi zuen bere bidea: “Garbi dago egunen batean euskal zinema bat egoteko gaur egun egin behar dena gehiago izango dela azterketa, ekintza baino. Eta horrek momentu batean suposatu dezake tipo baten karrera izorratzea, baina hori norberak ikusi behar du”.

MIKEL GARCIA

BAI, EZEIZAK EGINA ZUEN HAUTUA: euskal zinemaren oinarriak definituko zituen, euskarri teorikoa finkatu. Luze eta zabal idatzi zuen euskal zinemak izan behar lukeenari buruz eta 1983ko elkarrizketan jada agerikoak ziren asmo horiek: “Konprenitzen dut 19 urteko gazte batek bere ilusioak bete nahi izatea, baina 40 urterekin sei film luze egin ditut, zine-magile baten ametsak beteak ditut. Horregatik, hona etortzerakoan pentsatu nuen nire izenaz baliatuz film bat edo bi egiteko dirua lortu baino hobe izango zela euskal zinema baterako oinarri sendo bat jartzen hasia”.

Erabaki horretara iritsi aurretik, jirabira ugari bizitza eraman zuen. Laburrean, 1935ean jaiozako donostiarrak Madrilo Zinema Eskola Ofizialean izena ematea erabaki zuen 21 urterekin, hein batean, familiarekin eta euskal munduarekin apurtzea “ia exijentzia bat” zelako garai hartan. Zinema munduko pertsona interesgarri franko eza-gutu zuen han eta ironikoki, Espainiar Zinema Berriaren fundatzaileetako bat izan zen. Urte haietan, Elias Querejeta ekoizle herna-narra izan zuen bidaide eta lan ugari zuzendu zituen: *A través de San Sebastián*, *A través del fútbol*, *El próximo otoño*, *De cuerpo presente*, *Último encuentro*, *Las secretas intenciones*. Arrazoi politikoengatik, 1973an Mexikora ihes egin eta *Mina, viento de libertad* errodatu zuen, Frantzisko Xabier Mina Mexikoren independentzia gudan parte hartu zuen iraultzaile liberal nafarraren bizipenetatik abiatuta. *El complot mongol* poliziakoa ere sasoi hartakoa da. Hain zuzen, erbesteak, Kuban eta Mexikon igarotako urteek, gerturatu zuten Ezeiza aberrira. Bere hitzetan, han deskubritu zuen Euskal Herria.



Ezeizarentzat, euskara ezinbesteko ezaugarria zen filmak euskal kategorian izan nahi bazuen. Euskadiko Filmategiarena da argazkia, *Antxon Ezeiza: Cine, existencialismo y dialéctica* liburuan erabilia.

Azkenik ere, 1977ko amnistiarekin batera, hona itzuli eta helburu berriari ekin zion, euskal zinemaren alde.

Askapen Zinematografiaren postulatuak

Euskal zinemaren panoraman dena egiteke zegoela-eta, 70eko hamarkada bukaeran eta 80koaren hasieran Euskal Zinema Nazionalaren bere ideia garatu zuen hainbat idatzitan. 1985eko *Reflexiones para un debate sobre el cine vasco* (Euskal zinemari buruzko eztabai-darako gogoetak) artikuluan dago zuzendariak euskal zinemaz egin duen hausnarketarik mamitsu eta luzeenetakoa, hiru adar nagusiri tiraka: hizkuntza, estetika eta edukia.

Bere aburuz, euskarak erabateko lehentasuna dauka eta ezinbesteko ezaugarria da pelikulak euskal kategorian izan nahi badu. Bestetik,

“Diote *Ikuska oso rurala zela, baina Euskal Herriko jendearen arazoez mintzo zen, euren kezkez, eta herritarrei beraiei ematen genien ahotsa”*

euskal zinemagileen lana da berezko estetika aurkitzea, dugun iragan oparoan arakatuz. Eta azkenik, edukiari dagokionez, Askapen Zinematografia baino ezin da izan Euskal Zinematografia Nazionala, gure nortasuna eta burujabetasuna berreskuratzen lagunduko digun zinema. Behin hori lortuta, dio, ez litzateke beharrezkoa izango eduki aldarrikatzailea lehenestea.

Ikuska, ekimen erreferentea

Aipaturiko oinarri teorikoak batik bat bi obratan islatu zituen Ezeizak: *Ikuska* proiektuan eta *Ke arteko egunak* filmean. Ikus-entzunezkoan ezer ez zegoen garaian jaio zen *Ikuska*, 1978 eta 1985 urteen artean euskaraz errodatutako 20 dokumental laburreko saila. Donostiarrak koordinatuta, berak bost dokumental zuzendu zituen eta gainerakoetan beste hainbat zinegilek hartu zuen parte, tartean Koldo Izagirrek, Juanba Berasategik, Montxo Armendarizek edo Imanol Uribek. Besteak beste, zinegile berrien eta kanpotik itzulien profesionalizazioa ahalbidetzea zuen xede Antxon Ezeizaren ekimenak, “benetako euskal zinegileen lehen belaunaldia” sortzeko asmoz.

Euskararekin eta euskal gizartearekin zerikusia duten gaiak jorratu zituzten dokumentaletan eta horri esker urte haietako errealtatearen artxibo bikaina dugu egun. Haatik, Euskal Herri tradizionala eta ez garaikidea irudikatzea ere leporatu izan zaio proiektuari. “Lehenengo *Ikuska*-n agertzen da arrantzale bat esanez ‘ni arrantzalea naiz’, euskaraz; garairako erronka handia zen hori! Dena euskaraz! Eta orain hartu eta diote oso *rurala* zela, arkaikoa... baina Euskal Herriko jendearen arazoez mintzo zen, euren kezkez, eta herritarrei beraiei



Antxon Ezeizak zuzendutako *Ikuska* 14: *Artzainak* (goian) eta *Ke arteko egunak* filmen fotogramak.

“Gustatuko litzaidake jendeak pelikula existentzial gisa ikustea *Ke arteko egunak*, ez film politiko gisa”

ematen genien ahotsa. Hori ez al da garaiko errealtatea islatzea?”, izan zen Ezeizaren arrapostua, iaz elkarizketatu nuenean.

Ke arteko sufrimendua

Azken filma izango zuena –*Felicitades, Tovarich*, aitona komunistaren eta bilobaren *road movie*-a– errodatu baino sei urte lehenago estreinatu zuen *Ke arteko egunak* (1989). Koldo Izagirreraren gidoi txukunaren eta laguntzaren bermearekin, Donostiako Zinemaldiko Donostia Saria irabazi zuen eta Urrezko Maskorra lortzeko lehiatu den euskarazko lehen pelikula izan zen. Protagonistaren itzulera narratzen du lanak: Pedro Sansinenea Euskal Herrira bueltatu da herri-minak bultzatuta, hogei urte

Mexikon igaro ostean. Sakonean, sufrimenduari buruzko filma da, sufrimendu pertsonala eta sufrimendu politikoa, testuinguru mugitua bizi baitu Euskal Herriak, manifestazioetako ke arteko egunak dira, eta bere gordinen ageri da gatazka. Fin irudikatzen du obrak giro hertsia eta itoa. Hainbat kritikarik politikoki epaitu bazuten ere, ideologia zehatzik gabeko lana dela azaldu zuen Ezeizak

bere garaian, barrikaden atzean dauden sentimenduak agertu nahi izan zituela eta bakea lortzeko bere ekarpena zela. “Gustatuko litzaidake jendeak pelikula existentzial gisa ikustea *Ke arteko egunak*, ez film politiko gisa”, adierazi zuen orduan.

Pelikulak ez zuen Urrezko Maskorra lortu, baina urte batzuk geroago, 2003an, Zinemaldiak Ama Lur saria eman zion zinegileari eta hunkituta jaso zuen Antxon Ezeizak. Eskainitako diskurtsoan, ezin bestela izan, zinema euskalduna, euskaraz eta askea aldarrikatu zuen. ■



IBARRAKO
U D A L A

San Bartolome plaza 2
20400 IBARRA
Euskara Zerbitzua: 943 67 38 27
euskara@ibarrakoudala.net
www.ibarrakoudala.net

• Administrazioa	943 67 11 38
• Euskara Zerbitzua	943 67 38 27
• Txontxo Ludoteka	943 67 51 72
• Uzturpe Udal Haur Eskola	943 67 02 84
• Kiroldegia (Tel/Faxa)	943 67 15 44
• Kultur Etxea	943 67 03 99
• Gizarte Zerbitzua	943 67 04 15

Liburuak

KRITIKA

Azkenik ere, maitasunaren garaipena

Helduen literatura

Saioa Ruiz Gonzalez

ZER BARKATURIK EZ eleberria, protagonistak bizi duen krisi momentu batetik abiatzen da. Emazteak utzita eta ustezko depresio batek jota, lanetik aldentzea erabaki du Mikel Izuk. Tartean, aspaldi ikusi gabeko anaiak bereak egin ditu berriro; haren etxean topatutako giza hatz bat eta alemaniar izena daraman hegazkin agiriak, Mikelek berak espero ez lukeen irrealtasun kutsuko istorio bati hasiera emango diote. Orotariko pertsonaiak gurutzatzen hasiko dira protagonistaren bizitzan: Mikelen anaiaren bila datorren neska andaluziarra, belarri bakarreko agure misteriotsua, ukrainiar narkotrafikanteak, senar jeloskor ludopata bat, 1941. urtean izandako gertakari odoltsu batetik bizirik atera ziren judu eta naziak, besteak beste.

Lotura agerikorik gabeko panorama nahasi honetan, pertsonaien arteko erlazio katea osatuz joango da ezusteko gertakari etengabeen bitartez. Istorio desberdinen gurutzapenak horma bakarra eraikiz joango dira eta, paraleloki, marraztua ikusiko dugu pertsonaia bakoitzaren iragan ezkutua. Ladron Aranak bere irudimenerako gaitasun ia agortezina agerian utzi du, irakurlearen arreta bereganatzea



Zer barkaturik ez.
Alberto Ladron Arana.
Elkar.
316 orrialde.
21 euro.

lortzen duten misterioz jositako 316 orrialdeetan zehar. Ez dago pentsatzeko tarterik, su-etenik gabeko akzioak eskutik eramaten du irakurlea. Misteriozko eleberri bati ongi egokitzen zaion idazkera arinaz baliatu da eta horretan oso lagungarri suertatzen da protagonistaren hitzek biltzen duten umore eta ironiarako tendentzia. Askotan fikzio maila horren sakonetan mugitzen garen, txoro barrea eragiten dizkiguten keinuak eskertzeak dira, errealitatean gaudela gogorarazten digutelako.

Ladron Aranak Iruñea bilakatu du gertaleku zentrala, agian, “gertuegi” gerta dakigukeen espazio bat. Hala izanik ere, bertako kale eta tokien zehaztasun ezak, zein intriga beste hainbat espazioetara zabaltu izanak, irakurleari fikzioan bere kabuz murgiltzeko aukerak areagotzen dizkio, gogoan dudanez, *Abaztuen mendekua* (2009) eleberrian gertatu ez bezala. Iruñea eszenatoki zuen eleberri hartan ere, errealistegia suertatu nahi izanagatik, krimenen misterioaren indarra ahul xamar nabari zen, iruindarren gusturako behintzat.

Bukaeran, *Abaztuen mendekua* gertatu bezala, maitasun kontuek bereganatzen dute garrantzia. Kasu honetan ez dugu maitasun triangelurik topatzen, baina eleberraren izenburua protagonistaren ahotan entzuten dugu, “zer barkaturik ez” dagoela esanez. Krimen eta gertakari misteriotsu kateatuen behin-behineko argibide izateaz gain, narrazioan zehar egosiz joan den maitasun erlazioaren garaipena azpimarratu nahi izan denaren sentsazioa helarazten du, eleberrari hasiera eman dion protagonistaren maitasun krisia gainditu dela baieztatu nahiko balu bezala. Eleberraren amaierak eragin dezakeen sentsazioetan bat baino ez da, tartean eragiten dituen txoro barreak nahiago dituenak, aurrera.



Euskaraz!

EUSKAL KULTURAREN XIII. JARDUNALDIAK
XIII JORNADAS DE LA CULTURA VASCA



Abenduak 3, Euskararen Nazioarteko Eguna
3 de Diciembre, Día Internacional del Euskera
Galdu egingo duzu?

www.getxo.net

Atsegin dut

Getxo

EUSKARA
BIZI

BFA
DFB

EUSKAL JARDUNALDIAK
GOBIERNO VASCO

Elkar

uk

egizul

ITXERTU

Elkar

Qin

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Sumision City Blues.
Sumision City Blues.
Autoekoizpena.
Iraupena: 16'43".
5 euro.

Predikatzeko *tempo*a

GASTEIZKO Obligaciones taldeak ibilbidea eten zuen onespén handiena zue-nean eta talde hartako bi partaidek, Iñakik eta Antik, eskarmentua zuten beste bi azeri gasteiztarrekin, Penikerekin eta Davidekin bat egin zuten. Hirian lur hartutako Sexty Sexerseko Joseba batu zitzaizen eta proiektu berria egitea erabaki zuten, askeagoa. Bakoitzaren taldearen estiloak estututa zituen eta zerbait irekiagoa egin nahi zuten. Hala, bluesetik, Australiako tal-

deetatik, harrokeriatik eta hitz errezitatuetatik asko duen emaitza lortu dute, rock urbanoa, funkya eta beste hainbat joera batzeko gai dena. Musikari handiak beste *tempo* desberdin batean eta "Pela" *frontman* sinesgarria iruditeria handia duten gaztelaniazko testu apokaliptiko-gizatiarrak antzeztzen. Ia aldi berean kanta ugariz osatutako EP bat eta honako CDa kaleratu dituzte.

www.myspace.com/sumisioncityblues

Iñaki Urbizu "Pela" - Sumision City Blues

«Inork ez du LP oso bat entzuteko astirik»

Punk-rockaz nekatuta? Zer da zuentzat?

Punk-rockak oraindik ere liluratzen gaitu, handik gatzelako eta hori garelako. Punka bizitza jarrera gisa ikusten dugu, baina talde batek gogor jo edo asko oihukatu arren, ez digu berez zirrara sortzen. Punk-rockak musikari luzarotan ez dio ezer interesgarri eman; bizirik dago baina uneoro errepikatuz. Eta errutina punkaren kontrakoa da erabat.

Mink Deville eta Cicatriz edo Nick Cave eta Eskorbuto? Halako etorria pizten dizute Bibliak eta kaleko okadek?

Mink De Ville eta Eskorbuto esan beharko dugu. Erlijioek eta haien historiek asko erakartzen naute, eta antzinako garaietako, Bibliako eta Koraneko gauza asko irakurtzen ditut. Solemnitate handiz, odolez, intzestuz eta bidegabekeriaz beteta daude.



Hainbat formatutan abesti dosi txikiak kaleratzen diharduzue...

Bai, garaia zeharo aldatu dira: gaur egun musika eskuratzea inoiz baino errazagoa da eta inork ez dauka LP oso bat entzuteko astirik. Eta guri talde gisa aukera ematen digu sortu ahala kanta kaleratu, eta garapen azkarragoa izateko. Gainera, rock-and-roll onaren historia single eta EPetan grabatuta dago.

Taldean Penike eta Anti daude. Nolan ez duzue musika beltzean gehia-

go sakontzen, Miss Jacksonen tarteka egin duzuen bezala?

Penikek eta Antik bakoitzak artikulua oso bat mereziko lukete, musika beltza biziki maite dute. Musika beltza gustukoa izateko egin dago, eta gu gogaitzeko musika egin izan duten zurien eraginez musika egiten dugun beste zuri

batzuk gara. Miss Jacksonek ondo azaltzen du hori.

Bluesaren bitartez purutasunaren bila jo duzue, edo purutasunaren bila bluesa aurkitu duzue?

Bluesa rock-and-rollaren osagarri garrantzitsuena da, baina zeresan handia du horri gehitu nahi diotzunak. Bluesa garrantzitsua da gure musikan, baina baita ajea eta utzi gaituzten neskak ere. ■



Ezpalak

JON TORNER

'Gartxot' animaziozko kondaira zinema aretoetara heldu da



JOAN DEN ASTEAN estreinatu zen zinema aretoetan *Gartxot*, konkista aitzineko konkista animaziozko filma. XII. mendeko Nafarroako Zaraitzu ibarrean eta Otsagabian girotua, Arturo Campion idazle eta historialariak idatzitako *Itzaltzuko bardoa* kondaira du ardatz istorioak. Gartxot izeneko poeta da protagonista. Beste koblarien gisara, euskal kantak zabaltzen aritzen zen Gartxot. Filma Juanjo Elordik eta Asisko Urmenetak zuzendu dute. Urmeneta da, hain justu, pelikulak abiapuntutzat hartu duen *Gartxot* komikiaren egileetako bat –Marko Armspach eta Jokin Larre dira beste biak–. 2003an argitaratu zuen ARGIAk, eta urte hartan bertan Mediterraneo Saria irabazi zuen Korsikako Agaccioko Nazioarteko Komiki Jaialdian. Gartxot ekimenaren webgunean (Gartxot.com) filmari buruzko informazio gehiago aurki dezakezue. Pertsonaiei ahotsa jarri dieten hogeita hamabost laguneren artean daude, adibidez, Benito Lertxundi –musika ere berea da–, Mixel Etxekopar, Kike Amonarriz, Tittika Errekalt eta Kristiane Etxaluz.

Patxi Huarte

ZaldiEroa marrazkilariak *De Rerum Natura* bildumako laugarren zenbakia argitaratu du. Azken bi urteotan *Berria* egunkarian plazaratutako



komiki zintez gain, *Deia* egunkariaren *Ortzadar* gehigarrian jasotakoak ere bildu ditu liburuan, guztiak koloretan. Azalean La Pelota Basqua menditik behera amiltzen ageri da. “Bidean batzuk aurretik eramango ditu. Negua heldu da!”, dio Zaldieroak bere blogean.

Hatortxu Rock


musika jaialdiaren 13. edizioa Atarrabian (Nafarroa) egingo da urtarrilaren 6 eta 7an. Aurreko edizioan izan zuen harrera ikusita, bi eguneko formatuarekin jarraitzeko hautua egin dute antolatzailleek. Besteak beste, Bide Ertzean, Kerobia, Reincidentes, Soziedad Alkoholika, Leihotikan eta Ze Esatek! taldeek hartuko dute parte. Sarrerak www.hatortxurock.org atarian eros daitezke. Ostiraleko sarrerak 12 euro balio dute (15 euro egunean bertan erosiz gero), larunbatekoek 20 euro (24 bertan) eta bi egunetarako bonoak 25 euro.

Georg Baselitz

Anselm Kiefer, Gerhard Richter, Christian Boltanski, Jannis Kounellis, Francesc Torres eta Richard Long artisten obrak bildu dituzte Bilboko Guggenheimen. Europako gertaera politiko eta sozial esanguratsuak islatu zituzten artistok: Errusiar Iraultza, Hitlerren garaipena Alemaniako hauteskundeetan, Israel estatu izendatu zutenekoa edota II. Mundu Gerraren osteko gizarte, esaterako.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php



Euskaraz blai Hernanin



Abarrak

MIKEL ASURMENDI

(Nire) Denboratik at

Bi anai. Zuzendaria: Imanol Rayo. Aktoreak: Bingen Elortza, Aitor Coteron. Euskal Herria, 104 minutu.

HOGEI URTE LUZE DIRA Bernardo Atxagaren *Bi anai* ipuina irakurri nuela. Beranduago irakurri nuen *Obabakoak*. Obabako Daniel eta Paulo bizilagun petoekin gogoratu nintzen orduan. *Bi anai* ez dago *Obabakoaken*. Aspaldiko kontuak dira niretzat, eta orain *Bi anai* filma ikusi dudanean, egia erran, ez ditut horiek gogoan.


“Filmak liburutik ahalik eta gehien aldentuz eta, era berean honi fidelotasun osoa gordez, azalean soilik geratuko ez den berezko lengoaia berria sortzea du azken finean helburu” irakurri diot filmaren zuzendari Imanol Rayori, pelikula ikusi ondoren.

Bi anai (edo Obaba) ulertzeko funtsezkoa dugu denbora geureganatzea, Obaban ordea denborarik ez dago. Edo ez dago, guk bizi dugunaren erara. Denbora

izatez ez da existitzen. Denbora pertsonok gure buruari inposatu diogun aldagaia da. Literaturan –fikzioan– murgiltzen garenean, eguneroko denboratik at bizi gara –edo bizi nahi dugu–. Liburuaren maila nolakoa halako lilura sentitzen dugu. Denbora, izan ere, gure irudimenaren arabera lilura –aldagai magikoa– baita.

Nago, zinemaren lilura –istorioa, elkarrizketak, irudiak, muntaia, musika...– Imanol Rayok *Bi anai*en sortu duenaren bestelako lengoaia dela. Niretzat, noski. Bizitza nork bere erara bizi baitu, baita zinema bizi ere. *Bi anai* filmaren irudiak ederrak dira, ederrak oso bizitzaz gozatzeko, eta zinema –nire gusturako– irudia da oroz gain. Ezer ez da absoluturik ordea. Irudiak –norberaren irudimenaren arabera– *tempoa* behar du. *Bi anai*en (edo Obaba) munda-

duko biztanleek beren *tempoa* bizi dute, eta zinema aretoko ikusleek beste bat. Bestelako denbora, nire kasuan. Film honetako pertsonaiak ez dira naturalak, nire denboratik at daude, Daniel eta Paulo anaiez gorde ditudan oroitzapenetatik oso urrun (daude).



2011ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa

finalaurrekoak

HERNANI

2011-12-04 Galarreta pilotalekua / 17:30

Bertsolariak:

INAKI APALATEGI

JON MARTIN

AMAIA AGIRRE

JOKIN URANGA

INIGO MANTIZIDOR "MANTXI"

AINHOA AGIRREAZALDEGI


**gipuzkoako
bertsotzale
elkartea**

www.gpuntua.com

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:

1. Burdina lantzeko lantegiak, burdinolak. Arabiar dinastia. 2. Izaki bizidunetz osatutako talde handia. Terbioaren sinboloa. 3. Areago. Lapurdiko udalerria. 4. Ur erabat gazia, bertan janariak ezarritz kontserbak egiteko erabiltzen dena. ...-apa, hitzez hitz. 5. Landa, salbu. Liburu. Haritzaren antzeko zuhaitz. 6. Neurri. Zerbait besteetatik bereizten duena. 7. Egoiliar, biztanle. Arretaz, arduraz. 8. Gorotza. Zazpinaka.

Goitik behera:

1. Sendagaiak. 2. Sutondoan, pertza zintzilikatzeko kate gaketun. 3. Seta (alderantziz). Euskaltegi sarea. 4. Errepikatuz, gorotza. Itsasontzien soka. 5. **Argazkiko herria**. 6. Bezainbat. Izena (laburdura). 7. Zeregin. Txirringaren jarleku. 8. Ahoz. 9. Idealtzat baina ezin gauzatzukotzat jotzen den ideia. 10. Ur-korronte natural. Ukimen. 11. Agortu aditzaren infinitiboa. 12. Jainkoak israeldarrei basamortuan igorri zien janari miragarria. 13. Hegal, izkina. 14. Truke. 15. Perretxikoa.

Toscanako taberna batean

Arratsaldeko bostak. Uztaila. Arratsaldero bezala, Monteriggioniko kaleak hutsik daude. Etxetik ateratzera ausartu diren bakarrak Bar dell Orso-n daude, telebistari begira. Bat-batean turista bakarti bat sartu da tabernara. Une horretan, Berlusconi azaldu da telebistan.

– Horren aurpegiak astaipurdia zirudik! –esan du turistak, guztiek entzuteko moduan.

Hori entzun eta bezero batek hustu berri duen edalontzia bota dio. Turistak burua albo batera jiratu eta kolpea ekidin du. Edalontzia barraren atzealdeko hormaren kontra lehertu da. Turistak, hala ere,

bere grappa edaten jarraitu du. Handik bost minutura, Berlusconi azaldu da atzera ekranean: – Ez didazue esango honen aurpegia eta astaipurdia gauza bera ez direnik!

Oraingoan, barran aldamean duena mugitu da. Aurre oharrik gabe sekulako muturrekoa eman dio turistari.

Sudurretik darion odola sudur-zapian biltzen ari dela, turista haserre hasi da oihuka:

– Zer? Hemen denak Berlusconiare nazkagarriak al zarete edo?

Eta bezeroen artetik batek:

– Berlusconiare ez... asta-zaleak!

Sudokuak

Erraza

8				7	2		1
	2		4	1	7	6	
1	6	7	2	3		4	8
	9	4	3	1	6	8	
			4				
		8	7	9	2	4	5
4	8			2	3	6	7
	5	9	1	4		8	
2		6	8				4

Zaila

	2	4					1
7				1	4		
	8			7	4		5
9			1	5		8	
		1		9	8		2
2	9		3	8			4
		7	5				3
3						6	7

Soluzioak

8	1	6	5	7	8	9	2	3	4
2	8	4	7	9	1	6	5	7	3
7	5	9	3	6	7	2	4	8	1
9	3	1	8	7	2	4	5	6	3
6	7	2	1	5	8	4	3	6	9
4	2	8	6	3	1	9	7	5	4
1	6	7	2	3	5	4	8	9	7
3	9	4	8	1	7	6	5	2	8
5	4	3	6	5	7	2	9	1	8

Erraza

Zaila

3	1	5	4	2	9	6	7	8
8	4	7	5	1	6	2	9	3
2	6	3	8	7	1	4	5	9
4	6	1	7	9	8	5	3	2
5	7	2	1	5	3	8	6	4
9	7	2	1	5	3	8	6	4
1	8	9	2	7	4	3	5	6
7	5	3	8	6	1	4	2	9
6	2	4	9	3	5	7	8	1

Ezker-eskuin: 1. Olak, Alau, 2. Samalda, Tb. 3. Arg, Ainhua, 4. Gatzun, Ipi, 5. Ap, Idatz, Ametz. 6. Izari, Ezangarr, 7. Egoile, Kontuz, 8. Kaka, Zazpinaka. **Goitik behera:** 1. Osgaiak, 2. Iaraz, 3. Amet, Aek, 4. Ka, Ziga, 5. Landio, 6. Adina, 12. 7. Lan, Zela, 8. Hitez, 9. Utopia, 10. Iba, Ubi, 11. Agor, 12. Mana, 13. Ertz, 14. Truk, 15. Ziza.

DENA EMATEN DUGU

Gure kreditu guztia herriko enpresa eta familiei laguntzeko

Pertsonengan eta ideietan sinesten dugulako. Asko izan arren, bat eginda dihardugulako. **Euskadiko Kutxa langile guztiona dela badakigulako**, zugatik dena ematen dugu. Eta zugatik finantzaketa-liderrak gara: **5.000 milioi euro eman dizkiegu kredituetan 20.000 autonomo eta enpresari baino gehiagori eta 400.000 partikularri**. Izan ere, gure familia eta enpresei lagundu behar diegunean, dena ematen dugu.

www.cajalaboral.com



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

HEMEN GAUDE

Osasuna

JABIER AGIRRE

Antibiotikoen (kontrako) erresistentzia

ZENBAIT BAKTERIOK antibiotiko jakinen eraginei eusteko duten gaitasuna da erresistentzia, baldintza berdintsuetan antibiotiko horiek beste bakterio batzuen bizitza edo hazkundera galarazten duten arren.

Aurreko esaldi korapilatsua xeheago aztertuz, bakterio batzuen kontua dela ikusten dugu, ez bakterio guztiena. Hurrengo puntuan azaltzen saiatuko naizen bezala, erresistentzia, zorionez, ez da beti gertatzen, kasu gutxi batzuetan baizik.

Arrazoiak

Usu, bakterioen geneen egitura aldatzearen ondorioa da erresistentzia. Hala, bakterioaren kanpoko aldea inguratzen duen mintzaren osaera ere aldatu egiten da, eta antibiotikoek ezin izaten dute mintz hori zeharkatu, eta are gutxiago bakterioaren muinera iritsi. Edo bakterioak fermentu batzuk fabrikatuko ditu, antibiotikoak ezertarako balio ez dutela utziz, edo beren nutrizio-modua aldatuko dute, eta antibiotikoak blokeatzen dituen produktu eta elikagaien beharrik gabe irauten ikasiko dute. Bakterio batzuk inaktibo dauden bitartean soilik dira erresistenteak, edo normalean egoten diren inguruaren ezaugarriak (azidotasun-maila edo pHa, oxigenoaren presentzia edo oxigenorik ez egotea...) mantentzen diren bitartean.

Zenbait kasutan, bakterioen geneetan gertatzen diren aldaketak

euren ondorengoetara transmititzen dira, eta hala, posible da erresistentzia hori bakterio batetik beste batera igarotzea, bakterioen artean sortzen diren komunikazio berezi eta bitxiak baliatuz, edo badirelako gene horiek garraiatu eta bakterioen barrura sartzen dituzten birusak (bakteriofago esaten zaie, bakterioak jan egiten dituztelako). Arrazoi horiek guztiak direla medio, erresistentziaren arazoa gorantz doa pix-



kanaka, eta gero eta germen erresistente gehiago daude, ospitaleko giroan batik bat.

Ondorioak

Antibiotikoekiko erresistenteak diren gero eta bakterio gehiago egoteak zaildu egiten du bakterio horiek sortzen dituzten gaixotasunen tratamendua. Arazoa are larriagoa da antibiotiko bat baino gehiagoren kontrako erresistentzia agertzen denean. Izan ere, sendagai berriak aurkitzea ez da batere erraza.

Nola aurre egin egoerari

Antibiotikoak benetan beharrezkoak direnean baino ez dira erabili behar, eta zoritxarrez oso hedatuta dago botika horien abusua, umeengana batez ere. Sarritan inolako medikuk errezetatu gabe erabiltzen dira, eta kasu horietan oso litekeena da dosiak eta tratamenduaren iraupena egokiak ez izatea. Horrek erresistentziak sortzea errazten du, antibiotiko kantitatea ez baita aski mikrobioak ezabatzeke. Aitzitik, bakterioek erresistente egiten "ikasten" dute, baina ez bakterio horiek bakarrik, baita beren ondorengoek eta beste batzuek ere. Horregatik, kaltea ez da bere burua medikatzen den gaixoarentzat bakarrik izango, baita etorkizunean bakterio horiek edo beren ondorengoek kutsatu ditzaketen gainerako guztientzat ere.

Ezin aipatu gabe utzi hozturak nahiz faringitisak eta antzeakoak antibiotikoekin tratatzeko ohitura txar eta aski zabaldua. Antibiotiko arruntek ez daukate inolako eraginkortasunik kasu horietan, birusek eragindako gaitzak baitira. Baina botika hartu eta egun gutxiren buruan gaitza berez desagertzen denez, jendeak antibiotikoen eraginez sendatu dela uste izaten du, eta okerreko ohitura desegokia uxatu ordez, are sendago sinetsiko du hurrengoan ere antibiotikoak sendatuko diola gaitza.



Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Zur bera

INTSINIS PINU BELTZA (*Pinus radiata*) bezala Ameriketarik ekarritako bi zuhaitzek nire udazkenaren paisaia erretzen dute. Akuiluak idiaren saihtsean bezala, sast! Sastatekoa begietan. Kolore deigarrienak, inondik ere, gustuko ez ditudan bi zuhaitz horienak. Ikaragarritzko zurak emango zituztenaren ustetan basozaleek ekarri eta hedatutakoak.

Norteko haritza edo haritz amerikarra bata, *Quercus rubra*. "Rubra" hitzak dioen eran, udazkenean hostajea gorri-gorri jartzen du, eskarlata. Zura ere hala-koxea du, gorritzat. Haritz, erkametz, ametz eta arte, bertako quercustarrenaren aldean eskasa du egurra. Hori gutxi balitz, geurean gaitzak erabat jota dago, norteko harizti sano bat topatzea ez da erraza. Ipurditik eraitsitako zuhaitzen bat ez bada, arba osoak jausita edo zuhaitzean bertan ihartuta dauden adarrak ikusiko dituzu. Gaitzak jo eta eraitsi, eta aurrera egiten duten zuhaitz bakanek erdipurdiko zura... Alde hortik! Aitatzen didan guztiari norteko haritzik inolaz ere ez aldatzeko gomendioa ematen diodala urteak dira.

Haritz hori gorritz jantzen duen jostun beraren titarea sumatzen da bigarrenaren udazkeneko soinekoan ere. Hori-hori, urrezkoa hau, urrutira ere nabarmena. Idi-bihotz arbola edo tuliparbola, *Liriodendron tulipifera*; hitzez hitz, idi-bihotza edo tuliparen tankerako liliak ematen dituen zuhaitza. Hori ere amerikarra, Mendi Harritsuetan eta Ohio ibaiaren arroan basatia. Ale bakan batzuk badira, han eta hemen, kale, parke eta baratzeetan. Basoan, ordea, sailean jartzen dela ez da urte asko. Kategoriako zura ematen zuela izan zen zuhaitz hori aldatzen hasteko aitzakia. Horixe aitzakia! Horrek ere egur makala ematen baitu. *Populus nigra*, makalarenaren tankerakoa, gehienez ere 480 kilo metro kuboko. Zeharo eskasa. Papera egiteko eta asko jota hilkutxetarako.



HULSNUSSERY.COM

Haritz amerikarra (*Quercus rubra*).

Bi zuhaitzok, baina, uztarri batean behinik elkartu daitezke: azkar hazten dira. Tuliparbolak hamaika urtean hamabost metroak harrapa ditzake. Basozale diruzale, zaletasun bikoitzaren emaitza. Eta begietan min.



Ondarre baserria

20214 Segura (Gipuzkoa) Tel.: 943 801684

e-posta: ondarre@hispavista.com www.acvmultimedia.com/ondarre

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)

943 453 588 · www.sigacus.com

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Lehen bonba-autoa gurdi bat izan zen



Ezkerrean, 1920an, Wall Streeten, Mario Buda italiarrak egindako atentatua, bonba-auto bidezko lehenena. Ezkerrean, Napoleon Bonaparteren kontrako atentatua, 1800ean; autoa asmatu gabe zegoen artean, eta gurdia erabili zuten.

NEW YORK (AEB), 1920KO IRAILAREN 16A. Mario Buda anarkistak bonba-auto bat jarri zuen Wall Streetetik gertu, Bartolomeo Vanzetti eta Nicola Sacco kideak atxilotu izana mendekatzeko. Italiarrak 45 kilo dinamita eta 230 kilo metraila prestatu zituen eta autoa eguerdian leherrarazi zuen. 38 hildako eta 400dik gora zauritu eragin zituen. Henry Ford hamar urte lehenago hasi zen autoak sailean ekoizten; beraz, autoa kontsumogai gisa zabaltzen hasi eta berehala bonba-autoa asmatu zela esan daiteke. Teknikoki, Budarena izan baitzen historiako lehen bonba-autoa. Kontzeptua, ordea, zaharragoa da, 120 urte zaharragoa hain zuzen.

1800eko Eguberri bezperan, Napoleon Bonaparte lehen kontsula Parisko Saint-Nicaise kaletik pasa zen, eta hantxe aparkatutako kabriolet batek eztanda egin zuen. Bonbagurdiak bolbora upel bat zuen lotuta. Bonaparte ez zuen ukitu ere egin, baina hildako eta kalte material ugari eragin zituen eztandak.

Georges Lenôtrek gordin deskribatu zuen atentatua *La petite bistoire*

lanean: "Haragi zati biluzi bat arroilan: neskatoa da, aurpegiko azala erauzita, garezurra txikituta, besorik gabe. Gizon bat handik 30 metrora dago; bestea, pareko etxeko erlaitzaren gainean. Bere kargura zuen zaldiari burua baino ez zaio geratu; gurdiari ezertxo ere ez, uztai bat eta aurrerago Longueville hoteleko teitlatuan aurkitu zuten ardatz zati bat besterik ez".

Bonaparte kontsulak jakobinoak jo zituen erreduntzat. Baina Joseph Fouché polizia ministroak zantzuetan oinarritutako dedukzio metodo berritzailea jarri zuen abian, eta era-soaren errudunak beste muturrean zeudela ondorioztatu zuen: erregezaleek prestatu eta leherrarazi zuten gurdi-autoa.

Fouchéren metodoak garrantzi handia izango zuen gerora, batez ere Arthur Conan Doyleen Sherlock Holmes fikziozko detektibeak bultzatuta. Eta esan beharrik ez dago Mario Buda anarkista ez zela izan Frantziako monarkiazaleek asmatutakoaren jarraitzaile bakarra.



Arrastoak

Homo sapiens uste baino lehenago iritsi zen Europara

ITALIA HEGOALDEAN, Grotta del Cavallo izeneko kobazuloan giza arrastoak topatu zituzten 1964an; bi hortz, hain zuzen (argazkian, horietako bat). Hortzok berriki datatu dituzte eta emaitzak *Nature* aldizkariak zabaldu ditu: arrastotak *Homo sapiens* espeziarenak dira, eta 43.000-45.000 urte dituzte.



Aztarnategia aurkitu zutenetik, arkeologoek Neanderthaleko gizakiarenak zirela uste izan dute. Gainera, orain arte datatutako Europako *Homo sapiens* arrasto zaharrenak 35.000-40.000 urte dituzte. Horrenbestez, gizaki modernoa Europara pentsatu baino 5.000 bat urte lehenago iritsi zela ondorioztatu daiteke. Baina oraindik ez dakigu kolonizazioa uholde bakarrean ala hainbatetan gertatu zen.

Brasillrunen
Colon, 62 IRUN Tel. Fax. 943. 61 50 79

Bilboko Espazio Publikoaren Ordenantza

Elkarbizitzarako ala kontrol sozialerako tresna?

Urtebete igaro da Bilboko Udala Espazio Publikoaren Ordenantza aplikatzen hasi zela. Kritikek bere horretan diraute ordea. Ordenantzaren aurkakoek diote kalearen erabileraz dauden eztabaida sakonak araudi “ahalguztidun” batekin lurperatu nahi direla.

GOTZON ELIZBURU



Ordenantza Publikoaren aurkako Bilboko 70 eragile biltzen dituen plataforma da Kalea Guztiona Da. Irudian, ordenantzen kontra egindako manifestazio bat Udaletxera iristen.

KALEKO PROSTITUZIOA izan zen aitzakia. 2008an Miribilla auzoko biztanleak kalean lanean aritzen ziren puten jardunaz kezkatzen hasi ziren. Eztabaida baretzeko asmoz Bilboko Udalak prostituzioa arautzeko ordenantza egingo zuela adierazi zuen 2008ko irailean, baina proiektua gelditu zegoen Udala Gobernua osatzen zuten bi taldeen artean –EAJ eta EB– zeuden desa-

dostasunak medio. 2009ko martxoan auzoko batek perdigoiz tiro egin eta bi prostituta zauritu zituen. Prostituzioa debekatzeko eskariak gora egin zuen zenbait herritarren artean. Eztabaida puri-purian jarri zen Bilbon. Kalea Guztiona Da plataformako kidea da Sabin. Bere ustez agintariek “arazo txiki bat sortu eta alarma pizten dute. Puztu egiten dute herritarren lehentasu-

nezko arazoa balitz bezala, komunikabideekin elikatzen dute eta modu iruzurtian segurtasun gehiago edo debekuak behar direla saltzen dute”.

Bilboko Udala prestatzen ari zen araudiak, Bartzelonan 2005ean onartutako ordenantza zuen eredu. Alta, ordenantza horrek prostituzioa arautzeaz gain, kaleko salmenta, terrazaren erabilera, kalean edatea, bizikletan

BILBO V



BILBO V



2011ko maiatzean Bilbo V taldeak eta beste zenbait eragilek kaleak "berreskuratzeko" egindako saioaren irudi bi.

ibiltzea, propaganda banatzea eta abar luzea arautuko zituen. Berehala sortu zituen erreakzioak.

Ordenantza hau onartu aurretik bazeuden arlo ezberdinak arautzen zituzten beste udal araudiak: "Ordenantza honekin —dio Sabine—, araudi guztiak denak bakar batean batzeaz gain, espazio publikoan gertatzen den guztia arautu nahi izan da. Haienez, espazio publikoan egiten den guztiak molestatu egiten du, eta beraz, ahalik eta gutxien egin behar da". 2010eko maiatzaren 27an onartu zen ordenantza eta irailean hasi ziren aplikatzen.

Aurreiritziak eta eskubide murrizketak

Kalea Guztiona Da plataformakoen esanetan testuak ez ditu arautzen dituen jarduerak behar beste zehazten. Esaterako, "sexu esplizituaz" ari denean: "Ez du aipatzen zer den

sexua, ez du aipatzen zer den esplizitua eta gainera esaten du publikoarentzat erasokorra dela. Eta zein da publiko hori? Zer da erasokorra izatea?"

"Adierazpen askea kaletik kendu eta berek erabakitako bitartekoak soilik erabili ditzakezu"

SABIN, KALEA GUZTIONA DA

Shaila V Bilboko kidea da. Mugimendu hau ordenantzaren nondik norakoak jakin aurretik sortu zen Bilboko Okupazio Mugimenduak (BOM) bultzatuta, kontrol sozialari aurre egin eta kaleak berreskuratzeko asmoz. Berak azaldu duenez, "kontua ez da ezin dezakezula muxurik eman kalean. Hori anekdotikoa da. Esplotazio sexuala jasa-

ten ari diren emakumeak babestu beharrean, zuzenean kaletik ezabatu nahi dira. Ordenantzaren lehen bi biktimak putak izan dira. Ez da kasualitatea". *Top mantarekin* ere gauza bera gertatzen dela dio: "Guk ordenantzaren dimentsio hori ikusgaraztea nahi dugu: ordenantza sexista eta xenofoboa dela".

Izan ere, kaleko salmentan ibiltzen diren etorkinen egoera ez da askoz hobea. "Atzeritarren Legeak klandestinitatera bultzatzen ditu —dio Shailak—. Hori gutxi balitz, isuna jarri eta kartzelara bidaltzen dituzte. Sistema honen zentzugabekeria horretan datza, isunak ordaindu ahal izateko disko gehiago saldu beharko dituzte-eta".

Elkarte, alderdi politiko eta sindikatuei ere eragiten die ordenantzak, kalean informaziorako mahaiak jartzea, propaganda banatzea eta antzeko jarduerak debekatu egiten baititu. Herri mugimendua-

tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com

“Udan ezin dela txurrorik saldu eta neguan izozkirik ere ez, halakoak sakoneko eztabaida ezkutatzeke dira”

URTZI, OKUPAZIO MUGIMENDUA

ren aurkako eraso zuzena da debe-ku hori BOMeko Urtziren ustez: “Orain, kartelak ezin ditugu jarri ordenantza batek esaten duelako. Baina aurrez ere gazteak jipoitu, identifikatu eta isunak jarri izan dizkiete hamaika aitzakiarekin”. Shailak hau gaineratu du: “Zuk sinadurak biltzeko mahai bat jarri nahi baduzu burokraziak irensten zaitu, dena supermekanizatu, superkontrolatu izateko tresna da”. Sabine ere bat egiten du puntu horrekin eta Udalaren “zinismoaz” mintzo da: “Eurek ere kalea nahi duten erara erabiltzen dute. Kanean buelta bat eman eta Bilboko Udaleko logotipoa duten zenbat kartel dauden itsatsita ikusiko bazenu, harrituko zinateke”.

Bilboko Espazio Publikoaren Ordenantzaren kontra dauden mugimendu eta talde hauen iritziz, debekuen eta oztopoen atzean aurreiritzi murriztaileak daude. Gauza batzuk arautzea beharrezkoa dela deritzote, baina beharrezkoak diren eztabaida publikoak eman ostean. Era berean, bestelako jarraibideak bultzatzea behar direla uste dute: “Jarraibideak egon behar dira, baina ohituretan eta baloreetan oinarritutako hezkuntza sistema integral batean, arazoak erroitik mozteko”.

Eztabaida ezkutatzeke debekuak

Kalea Guztiona Da plataformako kideen iritziz eztabaida sakonak estaltzeko –debekuei eta zigorrorei buruzkoak adibidez–, “astakeria” ugari arautzen ditu ordenantzak: bizikletaz ibiltzea, umeen jolasak arautzea... Kaleko edanarekin, esaterako, ulertzeko zailak diren kontuak arautzen dira: dendan erositako botilekin egindako kontsumoa bada –*boteiloi* gisa ezagutzen dena– debekatuta dago, aldiz tabernan erositakoa kanean kontsumitzea ez. Okupa-

zio mugimenduko Urtzik argi dauka: “Udan ezin dela txurrorik saldu eta neguan ezin dela izozkirik saldu. Edo ezin dela kometarekin kanean ibili. Halako gauzak sakoneko eztabaida ezkutatzeke dira”.

Bi hiri ereduren arteko talka

Shailaren ustez ordenantza hau Bilbok azken 25 urteetan jasan duen eraldaketa prozesuaren emaitza baino ez da: “Bilboko oligarkiak gidatutako Bilbao Ría 2000 Fundazioak turismora eta zerbitzuetara bideratu du Bilbo, eta ordenantza berria jauzi horren ondorio da”. Aitzitik, Bilbon iraganean langile mugimendu eta herri mugimendu indartsua egon dela gogorarazi du Shailak.

Kalearen nolabaiteko pribatizazioaz ere hitz egiten dute mugimenduotako partaideek; gizarte eremuan ikusten du hori Sabine: “Bilbo erakusleho gisa eraiki dute. Badaude Udalak egiten dituen eskaintzak, aisia eskaintzen duten tabernak, antzerki guneak eta abar. Hori da herritarrek aisiarako duten tarte”.

AURTEN

EZ KULERO

EZ GALTZERDI

ASMATU OPARIAREKIN

urtean 20€

gaztezulo

NI ETA HIRE MUNDUA

Tel.: 943 457 250
harpidetza@gaztezulo.com

11 ALDIZKARI JASOKO DITU(ZU) ETXEAN.
MUSIKA, ZINEMA, SEXUA, INTERNET, KIROLA,
LITERATURA, ARTE ESZENIKOAK, ARGAZKIGINTZA...

Isunak

ARAU HAUSTE ARINAK (750 EURO ARTEKO ISUNA)

- Jokoak, kirolak eta dibertsioen praktika, elkarbizitza baketsua hausten badute.
- Boteiloia.
- Exhibizionismoa edo adierazpen sexualak espazio publikoan.
- Salmenta tokian jatea edo edatea salmenta ordutegian.
- Kaleko salmenta bultzatzea hauen artikulua erosit.

ARAU HAUSTE LARRIAK (1.500 EURO ARTEKO ISUNA)

- Jolas gogaikarri, arriskutsu edo debekatuak, pertsona edo jabetza pribatuei zein publikoei kalte egin diezaieketenak.
- Prostituzioa.
- Propagandadun mahaiak, aulkiak, guardasolak, toldoak eta abar jartzea.

ARAU HAUSTE OSO LARRIAK (3.000 EURO ARTEKO ISUNA)

- Lizentziarik gabeko kaleko salmenta.
- Udal baimenik gabe espazio publikoa okupatzea jarduerak egiteko.
- Udal agintarien, agenteen, udaltzainen eta espazio publikoaren inspektoreen agindua eta eskaera zehatzak ez betetzea.

Aldiz, kaleko bestelako espresio guztiak ezabatu nahi izatea egotzen die: “Pribatizazioa, zentzu horretan. Jarduera normala kaletik kendu, adierazpen askea kaletik kendu eta berek erabaki dituzten bitartekoak eta bideak soilik erabili ditzakezu”.

Txanponaren beste aldea segurtasunean –edo segurtasun ezaren sentsazioan– oinarritutako hiri eredu omen da: “Segurtasunaren ize-nean kalean udaltzain eta polizia pila bat egotea, kamerak egotea –teorian trafikoa kontrolatzeko– zerbaite positibo gisa ikus lezake herri mugimenduan inplikaturik ez dagoen herritarrak –dio Shailak–. Guk argi diogu ordenantza kontrol sozialerako tresna dela”.

Bide judiziala

Udal ordenantza onartzearekin batera, berehala etorri dira erantzunak. V Bilbok kaleak berreskuratzeko saioak egin ditu –esaterako, Bilboko Kale Nagusia okupatu zuten eta era guztietako ekimenak egin izan dituzte jai giroan–. Bestalde, Kalea Guztionak Da plataforma sortu zenean –V Bilbo eta BOM ere bertan biltzen dira, beste hamai-ka taldeekin batera–, manifestua kaleratu eta zabaldu zuten.

3.500 alegazio bildu zituzten Udal Gobernuari ordenantza bertan behera utzi eta eztabaida publiko bultzatzeko eskatuz. “Ez digute batere jaramonik egin –azaldu digu Sabine–, komunikabideetan esan dute ordenantza ez dela ongi ulertu

eta ez dagoela oposizioarako arrazoirik, baina elkarriketa eskatu diegunean ez digute kasurik egin”.

Urtebeteko epean ordenantzarekin lotutako 176 espediente ireki ditu Udalak. Hauetatik sei kaleko salmentarekin lotuak, 17 prostituzioarekin eta 128 kaleko edanarekin. Gainerakoak ostalaritza jardueri lotuak dira. Arau haustek hiru mailatan zehazten ditu ordenantzak: arinak –750 euro arteko isuna– larriak –1.500 euro arteko isuna– eta oso larriak –3.000 euro arteko isuna–.

Bilduk iraileko Osoko Bilkuran mozioa aurkeztu zuen, ordenantza hori bertan behera utzi eta eztabaida prozesu bat hasteko eskatuz, baina eskaera atzera bota zuten udal gobernua osatzen duten EAJko 15 zinegotziren botoekin. Andoni Aldekoa Udaleko kontseilari delegatuak honelaxe azaldu zuen korporazioaren iritzia: “Legea eta ordena babesten duen Gobernua gara, legerik eta ordenarik gabe bizikidetzarik ez baitago. Zer nahi du arautu ordenantza honek? Espazio publikoaren erabilera egokia. Norbanako

edo kolektibo batek espazio publikoa erabiltzen duen bakoitzean, bilbotar guztien ondasuna erabiltzen ari da, eta hori arautu egin behar da, eta desarauketak dakarrena da azkenean bakoitzak nahi duena egitea: bazkari bat, *paellada* bat Albiako Lorategietan, *putxerak* prestatzea edozein tokitan, eta bakoitza, inongo arauketa eta baimenik gabe, kalea hartzen dute, ateratzen dira, eta nahi dutena egiten dute. Hori da ordenantza honekin eragotzi nahi dena”.

Bide judiziala urratzea erabaki dute Kalea Guztionak Da plataformako kideek; administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu dute epaitegian. Helegiteak hiru zutabe nagusi ditu: Udalak ez duela jardueraz guzti hauek zigortzeko eskumenik; ez duela tipikotasun printzipioa errespetatzen, arauak ez baitira behar bezala definitzen, interpretazioarako ateak irekiz; eta azkenik, elkarte, sindikatuen eta alderdi politikoaren adierazpen askerako eskubidea murrizten dela.

Helburua ordenantza baliogabetu eta eztabaida publiko sustatzea dute. Sabine aitortu du bidea ez dela erraza izango eta ez daukatela irabaziko dutenaren konbentzimentu osoa. Baina, behinik behin, ordenantzaren kontraesanak azaleratzeko balioko duela uste du:

“Legea errespetatu behar dela diote eta lege-haustez betetako ordenantza idatzi dute”. ■



“Kalea hartzen dute eta nahi dutena egiten dute.

Hori da ordenantza honekin eragotzi nahi dena”

ANDONI ALDEKOA, BILBOKO UDALA

Hiru sentimendu eszenatoki berrian



MIKEL SAIZ

Victor Aiendi

ETAren adierazpenaren ondorengo egoeran, gehiago komentatzen da norberak zer *sentitu* duen, *pentsatu* duena baino. Nire kasuan ere honela da. Elkarriko arduretan hainbat urte eman eta gero, egoera berriak sentiarazi didanak garrantzi handiagoa du, pentsatu dudana baino. Kasu honetan, sentitzea, hierarkikoki, nagusi da hausnarketaren gainetik. Indar handiagoa du.

Nire sentipenak, laburbilduta, hiru izan dira, albistea jaso eta lehenengo unetik. Aurrena, eta atzera begira, *asetasuna*, sekulako barne asetasuna. Asmo kolektibo sakona betetzen ari zela ikusten ari ginelako aurrez aurre, zuzenean. Bereziki gogoan izan ditut hona iristeko, denbora luzez, ordu, lan eta ahalegin handia eskaini duen pertsona asko.

Asetasun horren alde nagusia da, konponbide eredu bat aurrera atera dela. Bi hitzetan, elkarriketa eta biolentzia eza, edo beste era batera esanda, konponbide demokratikoak urrats handia eman duela. Eta, zergatik ukatu, horren alde egin duen jendearen barnean geldituko den betirako sentsazioa: norabide onean bul-tzatu izana, ekarpen positiboa egin izana. Kontzientzia lasaitasuna, bakoitzak ahal izan duen moduan laguntzeagatik.

Azken urteetako norberaren jardunaren barne hausnarketa eta bakoitzak, per-sonalki zein taldean, egindakoaren irakurketa kritikoa eta autokritikoa egitean, akatsak eta ondo egindakoak errepasatuz, oso ederra da herri honetan bakea eraikitzen lagundu izana. Bizitza guztian eramango den barne satisfazio hori ordaine-zina da. Konfrontazio armatuaren amaieraren alde, bide demokratikoaren alde, hainbat energia dedikatu izanak ordainsari ukiezin bezain indartsua eskaini du azkenik.

Bigarren sentipena, orainaldira begira, *harrotasun* neurritsua, Lokarri eta elkar-riketaren lagunen lanaz harrotasuna. Lokarriko lagunak, ez da soberan aitort-zea, une egokian, toki zuzenean eta jarrera onenean egoten asmatu dute. Belau-naldien ikusmira batetik ikusita, bakegintza-gizaldi berriak lortu du zaharrak lortu ez zuena. Baina ulergarria da zaharrek poztasun handiz jasotzea bere oinordeko-en lorpenak, bereak bailira bezala, bederen, perspektibak ematen duen baretasu-nean.

Hirugarren sentipena, etorkizunera bideratuta, *lasaitu* ederra. Gure herria eta bereziki ondorengo belaunaldiak, gure seme-alabek barne, bere bizikidetza sozio-politikoan ez dira gu eta gure aurrekoak bezain baldintzaturik izango euskal gatazka dela eta. Hau da garrantzitsua, zalantzarik gabe. Gure gatazka politi-koa(k) beste era batera kudeatzeko aukera zabaldu da, edonola ikusita, askoz ere hobea.

Hemendik aurrera, inork ez du uste dena erraza, laua eta leuna izango denik. Baina inflexio puntu garbia eman da. Arazoaren zergatia eta ondorioei aurre egi-tearekin batera, euskal gizarteak bere indarrik onenak bideratu ahal izango ditu eraikitze lanetara. Alegia, gizarte bezala onenen eta aurreratuen mailan egote aldera. Eta horren bila jardunbide demokratikoetatik soilik.

Zauri asko sendatzen laguntzeko, jarrera positiboarekin eta ahalegin onenare-kin batera, indarrak bildu beharko dira hemen, politika onenak ezarriz. Berrikun-tza ez dagokio soilik teknologiarik, bizikidetza politikoa ere eraberritzea ezinbes-tekoa da.

Etorkizun argitsua dugu aurreko akatsetatik ikasten jakinez gero. Une historikoa (oraingoan bai esan daiteke) partekatu eta Euskal Herri berriaz gozatzeko eskubidea genuen. Eta berau gauzatzeko bidea hasi da.



» Akatsak eta ondo egindakoak errepasatuz, oso ederra da herri honetan bakea eraikitzen lagundu izana. Bizitza guztian eramango den barne satisfazio hori ordainezina da

XABIER LETE GOGOAN

GASTEIZ

Eñaut Elorrieta (Ken Zazpi)
Alex Sardui (Gatibu)
Mikel Urdangarin
Pier Paul Berzaitz
Arantxa Irazusta

Petti

Poeta: Bernardo Atxaga
Bertsolariak: Unai Iturriaga
eta Igor Elortza

Aurkezlea: Noel Elorga

Abenduaren 2an
Principal Antzokian
20:30tan

Sarrerak salgai: 15€, 20€, 30€
Principal Antzokia takila, <http://entradas.cajavital.es>
www.vitoria-gasteiz.org/teatros

Babesleak:  **Obra Social**
 **Vital Kubra**


Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



goratuetelel.com



DONOSTIA

Enaut Elorrieta (Ken Zazpi).
Antton Valverde.
Paco Ibanez.

Pier Paul Berzaitz.
Erramun Martikorena.

Amaia Zubiria.
Anje Duhalde.
Oskarbi.

Arantxa Irazusta.
Petti.

Poeta: Bernardo Atxaga.
Bertsolariak: Amets Arzallus,
Xabier Euzkitze

Aurkezlea: Noel Elorga

Abenduak 4ean
Kursaal-en
19:00etan

Sarrerak salgai: www.kutxa.net

Fundación kursaal fundazioa



Antolatzaileak:



aniza
komunikazio grafikoa



+34 619 421 153

Pedro Viegas Barros
Hizkuntzalari argentinarra

«Don Blasen ilusiorik handiena hizketa laguna aurkitzea da»

Egunkarian irakurri zuen Pedro Viegasek Don Blas txana hiztuna hizketarako lagun bila zebilela. Txana hizkuntza XIX. mendean desagertu zela uste zuten adituek. Don Blasekin berriketa luzeak izan ditu txana hizkuntza hitz egiten duela frogatu ahal izateko.

GORKA BERASATEGI

Argazkiak: Gorka Berasategi



“Historia ofizialak indigenak ezabatu nahi izan ditu, eskola liburuetan haiei buruz lehenaldian hitz egiten da beti, egun biziko ez bailiran”.

Zein toki izan dute hizkuntza indigenek Argentinan historikoki?

Konkistatzaileek herri indigenak bortizki zapaldu zituzten eta kultura indigenekiko mespretxuak beste aurrerapauso bat eman zuen estatu argentinarraren sorrerarekin. Europako estatuen ereduari jarraiki, eredu elebarkar eta kultura bakarrekoea ezarri zuen. Beraz, biztanleriaren errol-detan indigenen presentzia ezkutatzen saiatu ziren eta ez dago indigena kopuruaren inguruko daturik. Historia ofizialak indigenak ezabatu nahi izan ditu, eskola liburuetan haiei buruz lehenaldian hitz egiten da beti, egun biziko ez bailiran.

Ba al dakigu zenbat indigena bizi diren Argentinan?

2001eko erroldan herri indigenentzako inkesta gehigarria zabaldu zen. Eskuratu ziren datuen arabera,

600.000 indigena inguru bizi dira, 40 herri baino gehiagotakoak. Dena den, datu horiek kritika ugari jaso dituzte, indigena askok bere datuak ez zituztela eman gauza jakina da. Oraindik haien identitatea jakitera emateko beldur dira asko eta ez dira indigena aitortzen. Beraz, estimazio hutsa da.

Zenbat hizkuntza hitz egiten dira Argentinan?

Ezagutzen ditugun hizkuntzak –hitz egiten direnak eta desagertu direnak kontuan hartuta– 32 dira. Beraz, aldea dago gaur egun Argentinan bizi diren herri kopuruekin. Herri horietako batzuek izan zuten hizkuntzei buruz ez dakigu ezer.

Ezagutzen ditugun artean, 15 dira gaur arte bizirik iritsi direnak eta hiztun kopuruari dagokionez desberdintasun handiak daude. Adibidez, hiztun gehienak dituztenak Santiagoko kitxua (60.000-100.000 hiztun), maputxeen mapudungun hizkuntza (40.000-60.000 hiztun) eta toba (36.000-60.000) dira. Aldiz, txikien artean daude tapietea (380), txulupia (250) eta txorotea (1.200-2.100). Gainera, hiru hizkuntza daude hiztun bakarra dutenak: vilela, teueltxea eta txana.

Txana hizkuntza aztertzen aritu zara. Aspaldi desagertutako hizkuntza zela uste zen. Nola izan zenuen hiztun bat bazenaren berri?



Ezkerreko gizona da Don Blas. Txana irakasteko eskolak ematen ari da dozena bat ikasleri. Horieta inor ez da txana herrikoa.

Don Blas –Blas Wilfredo Omar Jaime da bere izen osoa– bere hiriko irrira joan zen. Parana hirian bizi da bera, Entre Ríos probintziako hiriburuan eta 77 urte ditu. Anaia zaharrena hil berri zitzaion, ama hil zela 20 urte ziren orduan eta txana hiztunik ba ote zen galdezko deitu zuen irrira. Bere hizkuntzan hitz egin ahal izateko lagun baten bila hasi zen eta albiste egunkarian ikusi nuenean jarri nintzen berarekin harremanetan. Orduz geroztik, zazpi urtez bildu dut haren testigantza.

Aurretik txanari buruz zegoen dokumentu bakarrenetakoa Aita Larrañaga apaiz uruguaiarrak idatzirikoa zen, 1815ekoa. Ordurako hiztun gutxi zeudela aipatzen du Larrañagak eta XIX. mendearen erdialdean desagertutako hizkuntza zela uste zen, baina emakumeek sekretupean mantendu dute alabei eta bilobei transmitituz. Emakumeak izan ziren kultura gordetzeko eta transmititzeko ardura hartu zutenak.

Eta Don Blasek nola ikasi zuen hizkuntza?

Amak erakutsi zion. Bere arreba bakarra haurra zela hil zenean amak galdetu zion hizkuntza transmititzeko beste inor ez zuela eta ikasi nahiko al zuen. Don Blasek 14-15 urte zituen orduan. Baiezkoa eman zion eta urte gutxira lanean hasi zen arren, ama bisitatzen zuen bakoitzeko txana hizkuntzaz gain, bere herriko ipuinak, historia eta naturari buruzko ezagutzak jaso zituen. Don Blasek uste zuen berak bezala beste batzuek ere amarengandik

jasoko zutela hizkuntza, baina oraingoz ez da inor agertu.

Latza izan behar du zure kulturaren azken euskarri zarela jakiteak. Nola bizi du Don Blasek egoera hori?

Berak esaten du sekulako pisua sentitzen duela bere gain eta hitz bat irakasten duen bakoitzeko sorbaladan daraman zaku horretatik harri bat kentzen duela. Orain hizkuntza irakasteko klaseak ematen ditu astean behin. Dozena bat ikasle dauzka, baina inor ez da txana herrikoa eta zaila da ikasten dutenek hizkuntza erabili eta ondorengoei transmititzea.

Azken hiztun direnengan ohikoa izaten den bezala, zenbait gauza oroitzen ez dituela onartzeko zailtasunak ditu. Adibidez, “zerbaiten barruan” nola esaten den jakin nahi nuenean galdetzen nion ea “patatak eltze barruan daude” nola esango lukeen. Berak erantzuten zidan zertarako esan behar ote lukeen halakorik, eltzeke tapa altxatzearekin nahikoa zuela. Orduan “txakurra etxe barruan dago” nola esango lukeen galdetzen nion eta berak ezetz, txanak ez zuela sekula txakurra etxe barrura sartzen utziko. Hortaz, “txakurra patioan dago” txanaz nola esaten den galdetu eta berak halakorik esateak zentzurik ez duela erantzuten zidan.

Bere ilusiorik handiena hizketa lagun bat aurkitzea da, dituen oroitzenak konparatzeko. Zurrumurrurru asko iritsi zaizkigu eta hamar bidaiait gora egin ditugu elkarrekin, baina orain arte ez dugu txana gogoratzen duen inor aurkitu.

Zein da Don Blasekin batera egin duzun lana?

Nire lan nagusia Don Blasen testigantza jasotzea izan da eta, batez ere, bere testigantzaren egiazkotasuna zientifikoki frogatzea. Denbora pasa ahala, Don Blasek gauza gehiago gogoratu ahal izan ditu. Zazpi urteko epean testigantza zentzuduna mantendu du, konplexua. Horregatik, eta Don Blasek gogoratzen zuenaren eta antzinako txanaren arteko loturak, baita txarrua familiako gaintzeko hizkuntzekiko dituen antzekotasunengatik ere, testigantza egiazkoa dela esan daiteke.

Zein aukera dituzte txana, vilela eta teueltxearen antzeko egoeran dauden hizkuntzek ez desagertzeko?

Oso zaila da bizirautea. Herri horietako kide direnek ikasten ez badute ia ziurra da ez dela belaunaldiz belaunaldi transmitituko. Hizkuntzalari gehienen ustez, 20 hiztun baino gutxiagoko hizkuntzen kasuan dokumentazioa da geratzen den baliabidea, datozenei ondarea ahalik eta modu fidelenean deskribatua uzteko lana. Komunitate kulturalako kideengandik sortu behar da hizkuntza mantentzeko nahia, bestela alferrik da. Kanpotik datorren edozein ekimen beti izango da inposizio gisa ulertua, baldin eta aurretik kideen borondaterik ez badago.

Horrez gain globalizazioaren ondorioak izan behar ditugu kontuan. Aurreikuspenen arabera munduan diren 7.000 hizkuntzetatik erdiak 100 urteren buruan desagertuko dira. Asko dira hamar hiztun edo gutxiago dituzten hizkuntzak, kultura baztertuak dira gainera askotan, gutxiago direnaren ustearengatik baztertuak direnak.

Argentinan hainbat herrik galdu dute haien hizkuntza. Zer gertatu da herri horiekin? Zer gertatzen da kultura batekin hizkuntza galtzen duenean?

Hizkuntzarik gabeko herria kulturalik gabeko herria da. Argentinan bizi diren herri batzuen kasuan, hizkuntza propioa galdu ondoren, beste herri indigena baten hizkuntza bereganatu dute. Adibidez, Santiago del Estero probintziako herri indigena guztiek kixua egin dute haien hizkuntza. Iparraldeko pro-

bintzietan, aldiz, diagitek ketxua ikasi dute; haien berezko hizkuntza, kakan izenekoa, desagertua baita. Kulturaren ohitura zaharrak berreskuratu nahi dituzte, baina hizkuntzarik gabe oso zaila da. Henia herrikoak adibidez, “*santu-chada*” izeneko festan biltzen dira urtero –herri horretan santucho baita abizenik ohikoena– eta lumak jartzen dituzte buruan, indioen estereotiporik ezagunenari jarraiki, baina ez da inolako erreferentziarik herri horretakoek lumaz janzten zirela esaten duenik. Hizkuntza galtzen denean kultura bera galtzen da.

Txana hizkuntza gertutik aztertu duzunez, zer ikusten duzu galduko dela hizkuntza desagertzen bada?

Kultura horrek milaka urtetan pilatu duen ezagutza pikutara joango da. Sendabelarre buruzko ezagutza, naturaren inguruko ikusmoldea... Zenbait gauza ez dira sekula modu berean deituak izango. Adibidez, aluari “bizitzaren lore” esaten diote, ikatzari “lotan dagoen sua”, geziari “heriotz hegalar”. Nork deituko ditu berriz horrela? Alexandriako liburutegia galtzea bezalaxe da. Desagertzen den hizkuntza bakoitzarekin Alexandriako liburutegi bat galtzen dugu. Nork daki Alexandriako liburutegian antzinako munduari buruzko zenbat ezagutza galdu ote den! Nork daki desagertu den hizkuntza bakoitzean galdu dugun ezagutza guztia!

Zer dakigu txana herriaren historiari buruz?

XVI. mendean txanak egungo Buenos Aireseko probintzian, Santa Fen, Entre Ríos-en eta Uruguai-ko lurretan bizi ziren. Paraná, Uruguai eta La Plata-ko ibaien ertzetan. Ehitariak ziren, nekazaritza ere lantzen zuten neurri apalean. Baina nagusiki arrantzaleak ziren. Arrantzaleak eta



Koadroan txanaz idatzita haxe dago: “Nire kolore txanaz harro nago”.

kanoistak. Behin behineko kanpamenduetan bizi ziren. Kasu askotan ibaietako irletan altxatzen zituzten bizitokiak.

“Amak erakutsi zion txana Don Blasi. Bere arreba bakarra haurra zela hil zenean amak galdetu zion hizkuntza transmititzeko beste inor ez zuela eta ikasi nahiko al zuen. 14-15 urte zituen”

Don Blasek dioenez, bere arbasoek kontatzen zuten txanak aurretik mendian bizi zirela. Basoetan. Iparraldetik iritsitako herria omen da. Erreferentziarik ez dago ordea, ez orain zenbat denbora izan zen hori ezta zein mendi ingurutan bizi ziren ere. Arbasoen kontakizunak dio garai hartan txanek gizarte

eredu matriarkala zutela, emakumeek hainbat senar zituztela, baina gosete baten ondorioz, txana herriaren menpe zeuden beste herriak matxinatu eta gertlari gizonek hartu zutela boterea.

Egun dozena bat pertsona inguruk aitortzen dute haien burua txana herriko kide. Denak Entre Ríos probintzia inguruan bizi dira baina sakabanaturik. Ez dute komunitate sentipenik elkarrekin eta inork ez du arbasoen hizkuntza gogoratzen.

Estatuak zein leku eskaintzen die Argentinako bertako hizkuntzei hezkuntza sisteman?

Argentinan, ia eskola guztietan, ez dira bertako hizkuntzak irakasten. Hezkuntza elebiduna eskaintzen duten eskolak salbuespena dira eta Patagonian eta Chaco probintzian aurkitu daitezke soilik.

Patagoniako probintzietan maputxek hizkuntzako irakasle figura sortu dute, baina ekimenak oraingoz ez du emaitza oparorik eman. Ikasleek oinarriko komunikaziorako estrategiak barneratzen dituzte: agurrak, zenbakiak, hitz erabilienak. Ez dute, ordea, hiztun osoen baliabide linguistiko-komunikatiboetan sakontzen. Beraz, hizkuntzaren irakaskuntza ez dago bermatua eta hizkuntza ikasten duten gazte gutxien kasuan eskolak ez du protagonismorik.

Chacon, berriz, hiztun indigenentzako irakasle formakuntza bultzatu da. 1995. urteaz geroztik, herri witxi, toba eta mokobietako kideak hiru urteko hezkuntza prozesuan murgildu izan dira, ondoren eskolak eman ahal izateko. Esperimentzia honek emaitza positiboak eman ditu. Izan ere, gutxiago dira eskola mailak gaingitu ezinik gertzen diren haurrak eta ikasleek haien berezko hizkuntza idazten ikasten dute. ■



Babeslea: EMUN

EMUN
LANA EUSKALDUNTZEKO
KOOPERATIBA

HIZKUNTZA KUDEAKETA ERAGINKORRA LORTZEKO BIDERIK ZUZENENA

- Hizkuntza aholkularitza eta euskara planak
- Euskara prestakuntzako modulu bereziak
- Itzulpen zerbitzua

www.emun.com
www.lantalana.com



TALAIAN

Urdangarin, monarkia eta paradisu fiskalak

Iñaki Urdangarin Espainiako monarkaren suhiaren ustezko eskandaluak mahai gainean jarri ditu bere “negoziolak”, baina baita Estatuaren Aurrekontu Orokorretatik Errege Etxeak urtero jasotzen duen diru publikoaren iluntasuna ere: urtean 8 milioi euro baino gehiago. Diru-sail horri beste batzuk gehitu behar zaizkio, hainbat kontzepturen ordainetan errege familiarentzat urtero bideratzen direnak, eta indarrean dagoen iluntasun horrengatik ofizialki ezagutzen ez direnak. Beraz, errege familiarentzat bideratutako egiazko diru kopurua, Aurrekontu Orokorretan “Errege Etxea” paragrafopean ofizialki azaltzen dena baino askoz handiagoa da. Espainiako Monarkiak zenbat hartzen du guztira altxor publikotik? Nola banatzen da diru hori errege familiako kideen artean? Egia al da Liechtenstein-en eta beste paradisu fiskal batzuetan bankukontuak dituzten “espainiarren” zerrendetan Espainiako Errege Etxeko kideak agertzen direla?

Urdangarini egozten diote diru publikoa bere enpresetara eta paradisu fiskaletara desbideratzea. Urdangarin buru duen Noos Institutuak, 2004 eta 2007 artean 5,3 milioi euro jaso omen zituen hainbat erakunderen eskutik, eta erregearen suhiak enpresa partikularretara desbideratu zituen 3,2 milioi euro. Diru horren zati bat paradisu fiskalera eramana litzateke. Urdangarinen bazkide Diego Torresek, funts publikoak paradisu fiskalera desbideratu zituztenean poliziari zehaztapenik ez ematearren, “Estatu arrazoiak” alegatu zituen. Zergadunok –euskaldunen diruak ere “Korooa” anakronikoaren gastuak ordaintzen ditu– esku-bidea dugu jakiteko zer egin den gure zergekin, eta inongo “Estatu arrazoiak” ez luke hori eragotzi behar. “Estatu arrazoi” horrek ustezko delituak estaliko litzuzke. Ez soilik Urdangarinenak, baita errege familiarenak ere.



Juan Mari Arregi

300.000 eurotik 0-ra

TOPAGUNEAK, Euskara Elkartearen Federazioak, datu argigarriak eman ditu. Nafarroako Gobernuak garairik onenetan 300.000 euro eman zituen diru-laguntzetan euskarazko hedabideentzat. 2012ko aurrekontuen proposamenaren berri eman du orain: hedabideetan euskarazko diru partida desagertu egin da, 0 euro.

Urte hau bukatzeko bi opari zeuzkan gordeta Gobernuak. Batetik, nahiz eta esleipena eginda egon 2011ko diru-laguntzaren bigarren epealdiaren %35 ez du ordainduko. Bestetik, buruan hartzeko zifra erraza idatzi du euskaraz aritzen diren hedabideei laguntzeko datorren urteko aurrekontuan: 0 euro. 2008ko uztailen 310.000 euroko diru partida blokeatu zuenetik gaur arte Ttipi-Ttapa TBren emisioak bertan behera geratu dira, besteak beste arazo ekonomikoengatik. 2009ko apirilean Xorroxin Irratiak diru-bilketa berezia abiatu zuen. 2010eko urtarrilean Bierrik elkarteak hasi zuen bizirik mantentzeko diru bilketa. Lehen larri zebiltzan Nafarroako euskarazko hedabideak itolarrian geratuko dira, 0 zifrak bere horretan segitzen badu bederen. Topagunearen ustez, 2012ko aurrekontuak babesten dituzten alderdiek euskarazko hedabideen heriotza zigorra sinatuko dute.

Euskara sustatzeko dirurik ez dago. Bestela gertatzen da gaztelerazkoekin. Azken urteetan Gobernuak 3.000.000 euro banatu ditu urtero Nafarroan emititzen duten hiru telebista pribaturen artean, alegia, Canal 4, Canal 6 eta Popular Televisión-en artean. 2012ko aurrekontu proposamenan 2.450.000 euro daude aurreikusita. Gogoan izan euskarazko hedabide guztien artean urterik onenean 300.000 euro banatu dituela Gobernuak. Publizitate instituzionalean ere diskriminazioa begi-bistakoa da. Gobernuak zuzenean edo zeharka hedabideetan sartzen duen publizitatearen %99 gaztelerazko hedabideetan jartzen du.

Euskarazko hedabideek ekilibrioak egin beharko dituzte –orain arte bezalaxe– %35 gutxiagorekin urtea amaitzeko. Datorren urtea berriz, beltza baino beltzagoa izango da aurrekonturik ez bada.

GORROTXATEGI




Egile Turroiak

Gorrotxategi Maisuaren Sorkuntza

Gorrotxategi

www.gorrotxategi.com


nik ere
eUSKARAZ



Abenduaren 3an ere Euskararen Eguna

Euskara iruditan mosaikoa

Bidali euskararekin lotzen duzun argazki kuttunena!



Mintzodromoak



euskararen
Ginkana.net

Informazio gehiago: www.gukereeuskaraz.net / www.euskararenginkana.net



PELLO ZUBIRIA

Paris, 1961-10-17: memoriak beti dauzka zulo beltzak

Urriaren 17an bete dira 50 urte Parisko kaleetan polizia frantsesak herritar aljeriarrak masakratu zituenetik. Garai hartan honakoa idatzi zuen Seine bazterrean norbaitek: “*Ici on noie les algériens*”, hemen ito egiten dituzte aljeriarrak. Orduan gertatuak erabat argitzeke daude oraindik. Mende erdi igarota, memoria osatu ezinik.

ARTIKULU HONEK EDIZIO GERRA jasan du berrikitan, zeinetan kide batzuek besteen aldaketak ezabatu baitituzte. (...) Kideei eskatzen diegu edizio gerrarik ez abiatzeko, bestela artikulua blokatuko dugulako”. Frantseseko Wikipedian esaldi honekin hasten da *Massacre du 17 octobre 1961* sarrera. Mende erdi pasata ere memoriaren inguruko gerrak bizirik dirau. Ixorioa gurea ekarrita, pentsa genezake gaur 18 urte dituzten gazteek erretetara iritsitakoan antzeko eztabaidarik ez dutela faltako oraingo torturez.

Aljeriako gerraren *relato* ezberdinek borrokan diraute Frantzian oraindik. Gainera, Mediterraneoaz haraindiko odolaren markak ez dira ikusten Parisen bertan isuritakoarenak bezain errez. Hain zuzen, 1961eko urriaren 17ko masakrea, Jean Luc Einaudi historialariak *La bataille de Paris* bataiatu zuenak, Europako estatu batek errepresio basatia –tortura eta hilketak barne– nola erabiltzen duen erakusten du, eta populazioaren gehiengoak nola itxi ditzakeen begiak agintariak ezarritako terrorearen aitzinean.

Liburu ale batzuek bildu dituzte gertakizun haietakoak, Einaudiren aipatuaz gain famatua da Michel Levineren *Les ratonnades d'octobre*. Marrazkitan *Octobre noir* publikatu berria dute. Zineman asteotan dira

estreinatzekoak *Octobre à Paris* Jacques Panijelena, urte luzez izozturik eduki ondotik. Alain Tasmaren *Nuit Noire* (1995) drama eta Mehdi Lallaouiren *Le silence du fleuve* (Ibaia isilik, 1991) dokumentala, biak ikus daitezke doan Internetez.

Film honek Seine ibaia ez du kasualitatez aipatzen. 1961ean zehar sarritan agertzen baitziren itota Parisko erriko magrebtarren gorputzak. Poliziak beti esaten zuen FLN *Front de Libération National* mugimendu aljeriarrak horrela kalitzen zituela bere arerio politikoak. Baina aljeriarrak ziur zeuden haietako gehienak poliziek jaurti zituztela uretara, bizirik bezala hilda.

Aljeriako gerra bukatzeaz zegoen. Charles De Gaulle jeneral eta presidenteak aitortzeaz zien aljeriarrei autodeterminatzeko eskubidea eta Suitzako Evian hirian negoziatzen ari ziren udaberrietik FLNkoak eta Parisko gobernuaren ordezkariak. Baina elkarriketak blokatuak zeuden. FLNk su-etena deklaratu zuen, baina tarteka Parisko komandoek segitzen zuten poliziak hiltzen tiroka edo bonbaz.

Frantzian 1962an 350.000 aljeriar bizi ziren, gehienak industrian eta eraikuntzan lanean. Erdiak Paris inguruetan. Ikusten dituzu egunotan *Le silence du fleuve* Nanterre, Aubervilliers, Argeinteuil edo

Egurrezko matraka daraman poliziaren mehatxupean atxilotu aljeriarrek hormaren ondoan babestu nahi dute, buru-hezurra lehertuko dieten beldurrez. 1961eko urriaren 17an Parisen poliziek jatorri magrebiarreko herritarren kontra egindako masakrean egin dago argazkia. Leihoan mahats bilketaren –*vendanges*– festa iragartzen du afixak; mendekua *vengeance* da. Urte asko beranduago, 1998an, Maurice Papon prefetak auzitara eraman zuen Jean Luc Einaudi *La bataille de Paris* liburuaren egilea, izen ona zikindu ziolakoan. Paponen erantzukizunak demostratzeko behar zituen agiriak ukatu zizkion Einaudiri Parisko artxibategiak; are gehiago, paper horiek bazeudela eta haiek Papon erruduna zela erakusten zutela ziurtatu zuten artxiboko bi langileak zigortu egin zituzten. 31 urte paseak ziren eta hala ere Parisko agintariak ez zuten egia osoa ezagutzerik nahi.

Ménilmontant auzoetako txabolategien irudiak eta kosta egiten zaizu sinestea hori Frantzia denik, uste baitzenuen *chabolismoa* Madril inguruetako eritasuna zela.

Parisen 1958tik Maurice Papon zen prefeta. Aginteari lotua gartzetatik, nazien okupazio garaian Bordelako prefetaren idazkari nagusi izan zen; askoz beranduago, hil aurretik, epaitu eta zigortuko zuten juduen Alemaniarako deportazioan esku hartu zuelako. Gerraren erdian alkandora aldatuta, De Gaulleren babesean egingo zuen karrera erretrera arte, 1980ko hamarkadan ministro izatera iritsiz. 1958 aurretik Aljerian Konstantinako prefeta izan zen. FLNari eta aljeriarrei neurria nola hartu ondo zekien, beraz.

Isilik ez Seine ibaia bakarrik

Eviango bake elkarriketak izoztuta, bi aldeek erakutsi nahi zuten indarra. Paponek FLNari batetik hegoak moztu nahi zizkion, Paris inguruetan ahalik eta komando gehien arrestatuz; eta bestetik, bazkarik gabe utzi nahi zuen, txabolategietan antolatuta zeukan *zerga iraultzaile* sarea deseginez.

Lan zikinenak egiteko, eta aljeriarren artean hobeto infiltratzeko, *Force de Police Auxiliaire* delakoa antolatu zuen Parisen ere, Aljeriako hiri eta herrietan bezala, Frantzia



Aljeriar batzuk karrikan geratu ziren hilik, askoz gehiago zaurituta, batzuk ihesian ibaira jauzi eginda ito ziren. Atxilotuak izan ziren... 11.500! Hauei, pilatu zituzten kaserna, kiroldegi eta beste eraikinetan, sekulako pasadak eman zizkieten, asko ospitalera bidaliz.

Zenbat hil zituzten egun hartan eta ondokoetan? Oraindik eztabaidan segitzen dute Frantzia, hasieran aipatutako Wikipediaren oharra lekuko. Jean Paul Brunetek 30-50 aipatzen ditu, Jean Luc Einaudik 200tik gora. Polizia frantsesak arrestatuak torturatu zituenik –poltsa, bainera, elektrodoak, botila uzkitik, jipoiak... espainolek hain ontsa ezagutzen duten munizioa– ez du gaur inork ukatzen.

1961ean polizia zen C. Toulousek *Le silence du fleuve* aitortu du Parisen atxilotu aljeriarrekin erabiltzen zituztela Aljerian armadak usatzen zituen metodo berak, naziek erabilitako tortura berak. M. Rein abokatuak irakurri ditu bere defendituek bidali gutunetan kontatutako tortura basatiak. “Denuntziak sartu genituen, baina epaile bakar bat ez zen jaitsi kasernetara, gertatzen ari zena aztertzeraz”.

Handik laster bukatu zen Aljeriako gerra. Alde bateko eta ez besteko agintariak gertakizunetan ikertzea baino lehenagoko lanak bazituzten. Bestalde, 1963an Parisek amnistia batekin zuriu zituen Aljerian eta aljeriarrekin edozein frantsesek egindako desmasiak. Eta zentsuraren laino gupidagabeak estali zituen 1961eko urriaren 17ko egiak. ■



kolonialarekin bat eginda segitzea nahi zuten *barki* aljeriarrez osatua. Eta errepresio sistematikoari ekin zioten hiriburuan, auzoz auzo. Atxilotu eta espetxera zihoazenez gain, goizetan sarri magrebiarren gorputzak azaltzen ziren Seine ibaiaren urretan.

Matxinoen Parisko taldeek ez zuten tregua agindua betetzen, eta tarteka poliziren bat hiltzen zuten. Polizien artean haserrea handia zen, mendeku nahia ere bai. Aljeriar jatorrizko jendeen artean bizi ezina larria zen bezala. Arrestatze masiboak etengabeak ziren. Polizien jipoi eta torturen albisteak entzuten ziren. Lapikoak gainezka egin zuen prefektak udaberrian onartutako dekretuarekin: iluntzeko 20:30etatik goizeko

05:30etara aljeriarrei debekatu zitzaizkion kalean egotea. Beltzaran jendearentzako etxeratze agindua.

FLNk manifestazio handi bakeatsu baterako deia egin zuen urriaren 17rako. Poliziak ez zuen azken unea arte jakin eta 1.700 inguru polizia mobilizatu zituen. Aurrean aurkitu zituzten bi-hiru dozena mila gizon, emakume eta haur, igandeko jantzita, independentziaren aldeko banderekin, hiru puntutan biltzen saiatu zirenak: Etoile, Saint-Michel eta Boulevardak.

Polizien erasoa beldurgarria izan zen. Haien herra berotzeko, barneko irratiek gezurretan iragarri zien borroketan polizia batzuk zauritu edo hilak zituztela. Erruki gabeko masakrea izan zen gau hartakoa.

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Annunxi Arana

Nortasun agiriko sexua

Jadanik kozkortua zenean heldu zitzaigun *Queer* teoriaren berri, ez hain aspaldian, eta eztabaidak sustatu zituen lagunartean. Adiskide gazteek jakinarazi ziguten sexua ez direla bi bakarrik, parrasta bat baizik. Guk, aldiz, bi direla, ugalketan duten funtzioaren ikuspegitik, eta horrek garrantzia baduela.

Eztabaida antzua, naski, kontua, fisiologikoa baino areago, ideologikoa delako. Zer, ondo pentsatuta, zergatik izan behar du sexua pertsonak banatzeko erabiltzen den ezaugarri nagusi eta unibertsalena? Haren gainean eraikia da generoa, hau da, sexu bakoitzari egozten zaion izaera, jarrera eta jardura multzoa; genero teoriaren arabera, ezaugarri horiek ez dira inondik ere naturalak, kulturalak baizik; hots, horiek baliatzen dira emakumeak gizasemeen menpean egon daitezen justifikatzeko. Eta halere, hemen eta nonahi sexua da sortu berriari eraxkitzen zaion lehen etiketa, nahiz eta, zalantzako kasuetan eginda, sufrimendu handiak ekar ditzakeen gero, aukera desegokia zela agertzen denean.

Ez da sexuaren existentzia ukatzea, errealtate biologiko bat da, larruaren kolorea bezala. Baina ez da arrazoirik sexua izan dadin jendeak sailkatzeko irizpide pertinentea, arbitrarioa baita horretarako eman zaion nagusigoa. Haren aipamena, beraz, baztertzekoa da arlo batzuetatik eta, hasteko, nortasun agiritik.

Arraza eta erlijioa ere azaltzen edo azaldu izan dira agiritan, beti diskriminatzeko helburuan –genozidioa bultzatzeko asmoan egin ez denean–. Sexua markatzea ez da inozentea, jestu politikoa da, pentsamolde batek agindua. Jadanik kendua dute Suitzan eta Alemanian eta, nahiz ez duen horrek sexismoa ezabatuko, aitzin urrats bat da.



GAIZKA IROZ

Eztabaida antzua, naski, kontua,
fisiologikoa baino areago, ideologikoa
delako. Zer, ondo pentsatuta, zergatik
izan behar du sexua pertsonak
banatzeko erabiltzen den ezaugarri
nagusi eta unibertsalena?

Gordinagoa da izenarena, horrek zinez behartzen du-eta bakoitza egon dadin esleitu dioten aldean. Euskal eremuan zedarritu gabeko aroa izan da behiala eta, horri esker, Haitz edo Olatz neska zein mutiko ezagutzen ditugu. Orain, Espainiako kode zibilak agintzen duenez, zorrozkiago debekatzen dira Euskaltzaindiaren izendegiak maskulinoztat dauzkan izenak neskei ematea, eta alderantziz.


Eta bai, oso arerio ahaltsuak eta eginakorrak baititu genero teoriak. Ez dela zientifikoa, iritzi okerra baizik, aldarrikatu dute berrikitan Frantziako eskuineko hautetsi zenbaitek, eta haren aipamena kentzeko eskola liburuetatik eskatu dute. Vatikanoa heldu da atzetik kusi-kusian: haren teologoen ikerketen arabera (haiek bai zientifikoak) generoa ez dela errealtate kulturala, eta bai sexuari eta biologiarri lotua; sexuen desberdintasun intrintsekoa zalantzan jartzea marxismoa baino arris-kutsuago dela, paradigma aldaketa dakarrelako eta familia hankaz gora ezartzen duelako.

Jendadia egituratu duen ardatz bat pikutara bidaltzea iraultza handia dela ez dugu dudarik. Horregatik behin eta berriz predikatzen digute emakumeak eta gizonak diferenteak eta osagarriak direla. Oso moñoñoa. Arazoa da desberdintasun horrek hierarkizazio (intrintsekoa, bai) daramala berekin eta lehenari eutsiz bigarrena ezaba daitekeela ezin dela sinetsi. Alternatibarik ez da: edo generoak mantentzen ditugu beren ondoriozko odol eta minekin, edo generoak ezeztatzen ditugu eta zerbait izugarria gerta liteke. Lehen hautuak zer eman duen badakigu; bigarrenak, ikusteko dago, baina zaila izango da bestea baino itsusiago ateratzea. Baietz proba egin nahi? Ea ba, sexuei garrantzia kendu, genero-tirania amilka bota eta bakea dela denekin. ■



ASTE HONETAKO

zozketa




Txondorra erretegia

Harpidedun batentzat
lau lagunentzako afaria

Bizkaia etorbidea, 9/9
Arrasate GIPUZKOA

www.txondorra-sagardotegi.com

1



Iruñeko Planetarioa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA

www.planetario.org

2



Jorge Oteiza Fundazio Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

De la Cuesta, 7
Alzuza NAFARROA

www.museoteiza.org

3



Nire amonaren Etxea

Pep Bruno & Matteo Gubellini

5 liburu opari

Txalaparta Argitaletxea
Tafalla NAFARROA

www.txalaparta.com

4



Egutegia 2012

5 ale opari

www.argia.com

5

AZKEN IRABAZLEAK (2298. Argia)

ATXURRA

- Nerea Zubia Blazquez (Oñati)

EUSKAL MUSEOA

- Jose Felix Zamakona Aranguren (Markina-Xemein)
- Mikel Lizarreta Jaka (Gartzain)
- Ander Epelde Ezenarro (Soraluze)

OTEIZA

- Ramon Egiguren Eizagirre (Donostia)
- Maripi Laskurain Iturbe (Bergara)
- Jose Maria Betelu Azurmendi (Elgoibar)

ARTIUM

- Javier Iraeta Narbaiza (Durango)
- Iñaki Urbistondo Plazaola (Azpeitia)
- Sabina Arruabarrena Sukia (Donostia)

HAURTZAINDEGI AGENDA

- Olaia Elortza Iñarra (Zegama)
- Santurtziko Udal Euskategia (Santurtzi)
- Lourdes Iruretagoiena Laka (Zarautz)
- Patxi Xabier Gonzalez Sanz (Gasteiz)
- Edurne Lazkanoiturburu Manterola (Hondarribia)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralerara 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia





jaietan
euskaraz

kiroletan
euskaraz

gozatu
euskARAZ

Noranahi goazela. Nonahi gaudela.
Gure jendearekin. Gure iritzia adierazi
nahi dugunean, geure erara. Euskara
gure bizimoduaren osagaia da.
Berezkoa dugu. Lagunen artean, gure
giroan, **gure artean euskaraz.**



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia